

URTEKO TXOSTENA 2005

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

harremanerako helbide elektroniko eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donosita-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

AURKIBIDEA


0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	9
Munduko ekonomiaren bilakaera	9
Analisia herrialdeka	11
Espainiako ekonomia	16
2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	20
2.1 EKOIZPEN ARLOAK	20
Sarrera	20
Lehen arloa	21
Industria	22
Eraikuntza	26
Zerbitzuak	27
2.2 ESKARIA	30
Sarrera	30
Gastua azken kontsumoan	31
Kapital eraketa gordina	33
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	34
2.3 LAN MERKATUA	46
2.4 PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	55
Prezioak	57
Kostuak eta soldatak	61
2.5 ARLO PUBLIKOA	62
2.6 FINANTZA ARLOA	65
ESTATISTIKA ERANSKINA	71

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

EAEko ekonomiak, 2005. urtean, %3,9ko hazkundera lortu zuen urte arteko tasan, aurreko urtean jasotakoa baino hiru hamarren handiagoa delarik. Emaiza horri esker, 2002an hasitako bizkortzeari jarraipena eman zion eta dagoeneko hamabi ekitaldi iraun du ekonomiaren hedaldiak, batez beste %3,9ko tasa ere lorturik. Portaera gero eta hedakorrago hau ez dator bat munduko ekonomiak eta Europako herrialdeen multzoak erakutsi zuten bilakaera perfilarekin, 2004. urteko aldakuntza tasetara ez baitziren iritsi, baina Espainiako ekonomiak marraztu duen ibilbidearekin antz handia dauka.

EAEko BPGren bilakaera

1. irudia



Indize kateatua. Oinarri urtea 2000=100
Iturria: Eustat.

Gehikuntza tasa txikiagoa izan zuen arren, esan daiteke munduko ekonomia, oro har, hedapen handiko aldi batean dagoela murgilduta, hazkunde tasak azken hamarkadetan jasotakoak baino handiagoak baitira. Bizitasun horretan garatutako herrialdeek eta garapen bidean daudenek hartzen

2005eko urteko txostena

dute parte. Azken hauek protagonismo garrantzitsua berenganatzen ari dira ekonomiaren egoeran. Izan ere, Txina eta India bezalako herrialdeek lortu dituzten gehikuntza apartak nazioarteko merkataritzaren harremanak areagotzen ari dira eta barne eskaria motelagoa duten herrialdeen industria jarduera suspertzen. Hala eta guztiz ere, ekonomia eremu guztiek ez dute etekin bera lortzen panorama baikor horretan eta, esate baterako, Europako herrialdeek, eta bereziki lau herrialde nagusiek, hobetu beharreko emaitzak izan zituzten, zeren eta haietako inork ez baitzuen lortu %2ko aldakuntza tasa bat. Europan, kanpo saldoak ez zuen orekatu barne eskariaren bultzada eza, alde batetik euroaren sendotasunak eta beste aldetik Asiako merkatuetan ondo kokatuta ez egoteak bizitasun handieneko tokietatik urrun mantentzen dute eremu hau. AEBak eta Japonia, ordea, merkatu horietako sendotasunaz baliatu dira.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Munduko ekonomia	4,9	2,6	3,1	4,1	5,3	4,9
AEB	3,7	0,8	1,6	2,5	3,9	3,2
Txina	8,4	8,3	9,1	10,0	10,1	10,2
Japonia	2,9	0,4	0,1	1,8	2,3	2,6
Europar Batasuna 25	3,9	2,0	1,2	1,3	2,4	1,7
- Alemania	3,2	1,2	0,0	-0,2	1,2	0,9
- Frantzia	4,0	1,9	1,0	1,1	2,3	1,2
- Erresuma Batua	3,8	2,4	2,1	2,7	3,3	1,9
- Italia	3,6	1,8	0,3	0,0	1,1	0,0
- Espainia	5,0	3,6	2,7	3,0	3,2	3,5
- EAE	5,2	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9


Iturria: NDF, Eurostat eta Eustat.

Munduko ekonomiaren hazkunde ereduak, interes gunea Asiarantz eraman baitu, zenbait puntu ahul erakusten ditu oraindik, ekonomia guztiak kaltetu ditzaketanak. Alde batetik, garapen bidean dauden herrialdeen hazkunde biziak lehengaien eskaria nabarmen areagotu du, baina eskaria askotan ezin da berehala egokitu eta, horren ondorioz, lehengai horien salneurriak gora egiten du. Hori horrela izan da, industria metalikoen lehengaien prezioa batez beste %16 baino gehiago garestitu zen. Hala eta guztiz ere, goranzko joera horren adibide garbiena petrolio gordinaren

garestitzea izan da berriro, urteko batez bestean 50 dolarretatik gora kokatu baitzen upel baten prezioa, 2004. urteko salneurriaren aldean %41eko igoera metatuz. Garestitze horrek jarraitu egin du 2006ko hilabeteetan ere eta upelaren balioa 80 dolarretara hurbildu da. Prezioak gorantz bultzatu dituzten arrazoiak oso ezberdinak dira eta eskarian zein eskaintzan dute jatorria. Eskariaren ikuspegitik zenbait eremuren hazkunde erritmo bizia aipatu behar da eta eskaintzaren aldetik gatazka armatuak, tentsio geopolitikoak, hondamendi meteorologikoak eta abar gertatu direla hartu behar da kontuan. Epe laburrean, merkatuak erregaiez hornitzeko arazorik egongo ez bada ere, petrolio gordina ateratzeko ahalmena bere puntu gorenera iristen ari delako usteak ere gorantz eramane ditu salneurriak.

Brent petrolioaren prezio bilakaera

2. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Beste aldetik, nazioarteko merkataritza, neurri handi batean, Asiaren eta AEBen arteko harremanetan ari da biltzen. Harreman horietan Asiako herrialdeak dira ondasunen ekoizle handiak eta amerikarrak dira ondasun horien kontsumitzaile nagusiak. Funtzioen espezializazio horrek desoreka garrantzitsua sortu du nazioarteko merkataritzan, estatubatuar dirua balio asko galtzera eramane dezakeena. Hala ere, Asiako herrialdeek beren merkataritza superabita aurretzen eta

2005eko urteko txostena


AEBetako defizita finantzatzen duten bitartean egon badago egoera orekatu bat, txanponen arteko lotura egonkor mantentzen duena. Hala eta guztiz ere, egoera hau, inolako zalantzarik gabe, edozein unetan alda daiteke eta aldaketa hori bat-batean gertatzen bada ondorio larriak gerta daitezke hazkundearen atalean.

Panorama berri honetan, badirudi Europak ez duela oraindik bere tokia aurkitu eta 2005. urtean hazkunde txikia jaso zuen. Alde batetik, kanpo merkataritzak ez zuen lagundu ekonomiaren ehuna bizkortzen, Japonian gertatu zen bezala, eta, beste aldetik, barne eskariak kontsumo pribatu motelaren ondorioak nozitu zituen. Azpimarratzeko moduko bultzada kapital eraketa gordinak bakarrik erakutsi zuen, eraikuntzan eginiko inbertsioak paper garrantzitsua jokatu baitzuen. Ekonomiaren ahultasunaren ondorioz, Europako agintariek Lisboako estrategia berrikusi zuten eta lehentasuna eman zieten hazkundeari eta enpleguari.

Espainia, ordea, ez zen bat etorri Europako herrialde nagusien portaerarekin eta oso hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen (%3,5), AEBetan jaso zenaren antzekoa. Espainiar ekonomiak berezko ezaugarri batzuk ditu, bestelako hazkunde eredu bat garatzea ahalbidetzen dutenak. Berezko ezaugarri horien artean, eraikuntza arloaren une aparta eta immigrante askoren etorrera aipatu behar dira. Faktore horiei esker, enplegua eta inbertsioa areagotu dira eta familien kontsumoa bultzatu. Baina bizitasun horren ifrentzua kanpo saldoaren narriadura garrantzitsua da, Espainiako ekonomiaren hazkundeari 1,7 puntu kendu baitzizkion 2005. urtean. Kanpo saldoaren desoreka inportazioen gehikuntza nabarmenaren ondorioa izan zen, atzerrira zuzendutako esportazioak ez zirelako neurri berean areagotu. Are zailagoa kontuan hartzen bada salneurriak Espainian Europako herrialde lehiakideetan baino gehiago hazi zirela. Halaber, hazkunde eredu espainiarrak lanpostu asko sortzen ditu, beraz ekoizkortasun irabaziak ez dira oso mamitsuak izaten eta puntu erditik behera kokatu ziren, etorkizunean lehiatzeko ahalmena arriskuan jarritz.

Testuinguru horretan, EAeko ekonomiak azken bost urteko hazkunderik handiena (%3,9) lortu zuen 2005. urtean, 2002an hasitako bizkortzeari jarraipena ematen eta hamabi urteko hazkunde jarraitua metatuz. Gehikuntza tasa horri esker, nabarmen gainditu da biztanleko barne produktu gordinaren Europako batez besteko balioa, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, eta 125,6 maila lortu (3. taula). Urteko gehikuntza tasa ona izateaz gain, azpimarratu behar da 2005eko hazkundearen osaera aurreko urteetako baino orekatuagoa izan zela. Izan ere, urte horietan EAeko ekonomiak erakutsi zuen kanpo desorekaren zati handi bat zuzendu zen azken ekitaldian. Kanpoarekiko saldo negatiboa gutxitu izanak, berez, barne produktu gordina ia puntu oso bat haztea justifikatzen du. Aitzitik, barne eskariaren ekarpena, oraindik oso garrantzitsua izan arren, ez

zen aurreko urteko bizitasunera iritsi eta puntu erdi baino gehiago moteldu zen aurreko urteko hazkundearen aldean.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

Barne eskaria osatzen duten bi atal nagusiek, hots, azken kontsumoak eta kapital eraketa gordinak, zertxobait moteldu zuten bere hazkunde erritmoa 2004. urtean ezagututako tasa altuen aldean. Familiek neurri handiagoan egokitu zuten beren kontsumoa barne produktu gordinaren hazkundeari eta, aldi berean, administrazio publikoen joera ez zen aurrekoa bezain hedakorra izan. Kapital eraketa gordinaren barruan, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izan zen agregatuaren moteltzea eragin zuen atala. Eraikuntzan eginiko inbertsioak, ordea, hazkunde erritmoari eutsi zion, ekonomiaren arlo horren adierazleek erakusten duten bizitasunari erreparatuta.

Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzakoak ez diren sektore guztien balio erantsiak hobera egin zuten aurreko urteko emaitzaren aldean, aldakuntza tasak guztietan garrantzitsuak izan zirelarik. Beste

2005eko urteko txostena

urte batez azpimarratu behar da eraikuntzaren sendotasuna, dagoeneko zortzi urtez jarduera tasa bizia erakutsi baitu. Orobat, industriak ere hazkunde nabarmena jaso zuen. Hain zuzen ere, sektore honek azken bost urteko emaitzarik onenak lortu baitzituen 2005ean, energia arloak eta ekipamendurako ondasunen ekoizpenak emandako bultzadari esker. Zerbitzuen arloak, gorabehera leunak izateko berezko joerari jarraituz, lau hamarrenetan areagotu zuen bere hazkunde tasa, bizitasun handiagoa bai merkaturatzen diren zerbitzuetan bai merkaturatzen ez direnetan, eta bereziki azken hauetan, jaso zutelarik. Azkenik, ekoizkinen gaineko zerga garbiek ere aldakuntza tasa igo zuten, puntu erdi bat atal honetan.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004(a)	2005(a)
Barneko azken kontsumoa	2,7	3,7	2,6	4,1	4,2	3,8
-Familien kontsumoko gastua	3,3	2,6	2,6	3,7	4,4	4,1
-Herri administrazioen kontsumoa	0,1	8,2	2,6	5,8	3,5	2,7
Kapital eraketa gordina	10,1	5,2	4,9	5,0	7,5	6,3
Barne eskaria	4,6	4,1	3,2	4,4	5,1	4,5
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	0,7	-0,9	-0,9	-1,3	-1,6	-0,8
Esportazioak	8,8	1,7	-0,8	-0,8	4,9	5,1
Inportazioak	7,8	3,0	0,5	1,2	7,3	6,0
BPG (m.p.)	5,2	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9
Lehen arloa	-20,4	10,3	-0,6	-5,7	29,9	-11,5
Industria	8,5	2,1	0,9	1,2	2,9	4,4
Eraikuntza	7,7	9,2	5,2	4,9	4,4	5,3
Zerbitzuak	3,4	3,1	2,7	3,2	3,2	3,6
Merkatuko zerbitzuak	3,9	3,2	2,7	3,5	3,4	3,6
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	1,4	2,8	2,6	1,7	2,0	3,4
Balio erantsi gordina	4,9	3,3	2,3	2,6	3,5	3,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	8,1	2,1	2,6	7,6	4,5	5,0

(a) Aurrerapena

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: Eustat.

Ekoizteko jarduerak izan zuen bilakaera bikainarekin batera, enpleguak ere hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen, %2aren zertxobait goragokoa. Beste behin, lanpostu berriak zerbitzuetan eta eraikuntzan metatu ziren, lehen arloak bere langile kopuruaren murrizketa etengabea galdatzea

lortu zuen bitartean, zenbait lanpostu sortuz. Industriak, berriz, bere jardueraren gehikuntza ekoizkortasun irabazi handietan oinarritu zuen, arlo horretan gertatu ohi den bezala. Zehazkiago adierazita, ekoizkortasun irabaziak industrian %5era iritsi ziren 2005. urtean, ekonomia osoan irabaziak %1,8an gelditu ziren bitartean. Hala eta guztiz ere, balio hori garrantzitsua da aurreko urteetako irabaziak eta, batez ere, espainiar ekonomian aldi horretan jaso ziren gehikuntza txikiak kontuan hartzen badira.

Enplegua igo zenez eta biztanleria parte hartzailea bere horretan mantendu zenez, langabezia tasak behera egin zuen nabarmen 2005ean, %5,7an kokatu arte, hau da, aurreko urteko data baino bi puntu beherago. Halaber, lan merkatuaren arazo nagusi batzuk neurri batean zuzendu ziren, hala nola langabeziak emakumeen eta gazteen artean duen garrantzia, bi kolektibo horietako tasak neurri handiagoan jaitsi zirelako. Horiek horrela izanda, bi sexuen arteko aldea 2,5 puntura murriztu da, lau urte lehenago bederatzi puntura iristen zen bitartean. Gazteen langabezia tasa, berriz, zazpi puntutan gutxitu zen urtebete bakar batean. Aldi baterako kontratua duten soldatapekoen tasa ere murriztu zen urtean zehar, baina oraindik altuegia izaten jarraitu zuen (%25,6), batez ere Europako ekonomietako balioekin alderatzen bada (%14,2).

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE25=100)	112,9	114,3	117,2	120,7	122,9	125,6
BPG erreala merkatu prezioetan	5,2	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9
Enplegua	3,9	2,9	1,9	2,2	2,2	2,4
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	1,3	0,3	0,4	0,9	1,4	1,5
BPG nominala merkatu prezioetan	8,0	5,5	5,2	6,5	8,2	7,3
BPGren deflatoea	2,6	2,2	2,8	3,3	4,4	3,4
KPI (urteko batez besteak)	3,5	3,9	3,7	2,8	3,0	3,3
Soldata-igoera	3,9	4,5	3,9	4,4	4,0	4,5
Langabezia tasa (*):	13,7	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7

(*) Europar Batzordeko CE 1897/2000 erregelamenduak zenbait aldaketa ekarri zituen pertsona bat langabetzat jotzeko orduan. Horren ondorioz, 2002ko datuak eta ondorengoak ezin dira zuzenean alderatu aurreko datuekin.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

Panorama baikor hau neurri batean ilunduta gelditu zen inflazioaren portaerarengatik, Europako Banku Zentralak ezarritako helburutik (%2) oso urrun kokatu zelako. Hain zuzen ere, 2005ean

2005eko urteko txostena

kontsumoko prezioen indizearen batez bestea %3,3ra iritsi zen, aurreko bi urteetako datuak gaindituz, Europako batez bestea motelago hazi zen bitartean (%2,2). Beraz, eremu horrekiko inflazio aldeak ehuneko puntu oso bat gainditu zuen berriro. Egia da kontsumoko prezioen indizeak bere hazkunde tasak gutxitzeko orduan eskaintzen duen erresistentzia neurri handi batean petrolioaren garestizetik eratortzen dena. Hala ere, eragin hori kentzen bada eta azpiko inflazioa (%2,7) aztertzen bada, agerian gelditzen da aldagai horrek ere ez zuela urratsik eman lehen aipatu den %2ko helburura hurbiltzeko. Horiek horrela izanda ere, aitortu behar da EAEko barne eskariaren hazkundera Europako herrialdeena baino handiagoa izateak neurri batean azaltzen duela inflazio tarte hori.

Inflazioaren maila altu samarra negoziazio kolektibora iragan zen eta lan hitzarmenetan adostu zen batez besteko soldata igoerak (%4,5) puntu erdi batean gainditu zuen aurreko urtekoa. Hala ere, lanpostu berrien osiera ezberdinak, lehendik zeudenek baino soldata apalagoak eskaintzen baitituzte, soldata kostua (%3,6) hitzarmenen igoera baino gutxiago haztea ahalbidetu zuen, nahiz eta hori ere aurreko urtekoa baino handiagoa izan zen. Kostu erlatiboek lehiatzeko ahalmenean gero eta eragin txikiagoa izan arren eta berrikuntzak, besteenak bezalakoak ez diren ekoizkinak ekoizteak, kalitateak eta abarrek erabakigarriak izan arren, prezioek eta soldatek sortzen duten gehikuntza jarraituak eragin handia izan dezake teknologia espezializazio txikia duten jarduera adarretan. Beraz, lan kostuen igoera kontuan hartu behar da EAEko ekonomiaren arriskuen zerrenda egiteko orduan.

Datozen ekitaldiei begira, 2006 eta 2007 urteak onak izango direla EAEko ekonomiarentzat aurreikusten da, hurrenez hurren %4,1 eta %3,7 haziko baita. Nolabaiteko moteltzea igartzen da, ekonomia eremu handienetan eta inguruneko herrialde nagusietan ere gertatuko dena. Bultzada nagusia berriro barne eskaritik etorriko dela espero da, kapital eraketa gordinak eta kontsumo publikoak gehikuntza tasa garrantzitsuak lortuko dituztelarik. Eraikuntzak eta industriak indar apur bat galduko dute eta balio erantsi gordinaren aldakuntza tasa motelduko da 2007. urtean, nahiz eta oraindik erritmo garrantzitsutan jarraituko duen. Bilakaera horrek enplegua sortzen eta langabezia tasa jaisten lagunduko du. Halaber, prezioen portaerak hobera egingo duela aurreikusten da, azken gorakada eragin zuten faktoreak, bereziki petrolioaren garestitzea, maila neurritsuagoetara itzultzen diren heinean.


1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2005. urtean, munduko ekonomiak indartsu eutsi zion bere hedatzeko joerari, nahiz eta 2004. urteko hazkunde altuen aldean lau hamarren gutxiago hazi zen. Gehikuntza tasa txikiago horren atzean dauden zenbait arrazoi honako hauek dira: petrolioaren prezioak izan zuen etengabeko garestitzea, irailaren hasieran upelaren salneurria 67,5 dolar estatubatuarretara iritsi baitzen, inoizko preziorik altuena lortuz; Rita eta Katrina urakanek AEBetako hegoaldean eragin zuten hondamendia; Nigerian eta Iraken bizirik dauden gatazka geopolitikoak; eremu garrantzitsu zenbaiten artean sortu diren merkataritza desorekak, eta interes tasak igotzeko arriskua. Hala eta guztiz ere, munduko jarduera ekonomikoa %4,9 hazi zen, hots, 2000. urtetik aurrera lortu den bigarren emaitzarik onena. Hazkundearen oinarrian, finantzaziorako baldintza erosoak, finantza merkatuen portaera ona eta hainbat herrialdetan enpresek izan dituzten mozkinak aipatu behar dira.

BPGren bilakaera

4. irudia



Iturria: NDF

2005eko urteko txostena

Eremu geografiko nagusien hazkunde ekonomikoa, oro har, altua izan zen berriro, eta energia ekoizkinen garestitzeak prezioetan eragina izan zuen arren, inflazioaren aldetik ez zen presio handirik hauteman.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005
Mundua	5,3	4,9	---	---	---	---
Txina	10,1	10,2	3,9	1,8	---	---
ELGE	3,3	2,8	2,2	3,0	6,7	6,5
AEB	3,9	3,2	2,7	3,4	5,5	5,1
Japonia	2,3	2,6	0,0	-0,3	4,7	4,4
EB 25	2,3	1,7	2,1	2,2	9,1	8,7
Alemania	1,2	0,9	1,8	1,9	9,5	9,5
Frantzia	2,3	1,2	2,3	1,9	9,6	9,5
Erresuma Batua	3,3	1,9	1,3	2,1	4,7	4,7
Italia	1,1	0,0	2,3	2,2	8,0	7,7
Espainia	3,2	3,5	3,1	3,4	10,6	9,2
Garapen bideko herrialdeak	7,7	7,4	5,6	5,3	---	---
Afrika	5,5	5,4	8,0	8,5	---	---
Asia	8,8	9,0	4,1	3,5	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	5,7	4,3	6,5	6,3	---	---
Trantsizio herrialdeak	6,5	5,4	6,1	4,8	---	---

Iturria: ELGE, NDF eta Eurostat.

Ekonomiaren hazkunderan lidergoa zuten herrialde nagusien banaketa geografikoa aurreko ekitaldietakoa bezalakoa izan zen. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Asiako herrialdeen sendotasuna azpimarratu behar da, eta garatutako eremuen artean, berriz, AEBetako indarra. Alde batetik, Txinako ekonomia munduko lau potentzia nagusien artean kokatu zen, Frantzia, Erresuma Batua eta Italiaren aurrean, 2005. urtean %10,2ko hazkunde tasa lortuta, hots, azken bi urteetako maila bera errepikatuz. Halaber, Indiako gehikuntza nabarmena izan zen, batez beste %8,5eko hazkundera lortu zuelako. Beste aldetik, Japoniako ekonomiak igurikapenak egiaztatu zituen eta 2000. urteko hazkunde tasak berreskuratu zituen, azken hogeita bost urteetako hazkunderik

garaienetako bat lortuz. AEBetako ekonomiak, berriz, sendo jarraitu zuen, nahiz eta 2004an izandakoa baino tasa txikiagoa jaso, eta munduko hazkundearen bultzagile nagusien artean kokatu zen berriro.

Bizitasun horretatik urrun, Europako ekonomiak munduko batez bestetik oso azpian dauden hazkunde tasak jaso zituen 2005. urtean, tasa horiek eremu horretako lau herrialde nagusietan %2ra izatera iritsi ez zirenak. Ekonomiaren beste ziklo batzuetan ez bezala, Europak ez du jakin nazioarteko merkataritzaren une egokiaz baliatu bere esportazioak areagotzeko eta ekonomia bizkortzeko, eragileen artean hedatua zen konfiantza faltak barne eskaria kaltetzen zuen une batean. Hala eta guztiz ere, 2005. urteko azken zatian suspertzeko prozesu bat hasi zen, 2006. urtean ere luzatu dena.

Hazkunde tasa ezberdineko testuinguru horretan, Espainiako ekonomiak %3,5eko gehikuntza tasa lortu zuen 2005. urtean, hazkunde jarraituko hamarkada oso bat metatuz. Europako beste ekonomia zenbaitek erakutsi zuten moteltasunetik desberdintzen duten ezaugarriak eraikuntza arloak bizi duen sendotasun bikaina eta Espainiara iritsi den immigrante kopuru handiak eragin dituen eskariak dira. Horien guztien ondorioz, enpleguak eta eskariak elkar sustatzen duten bertutezko zirkulu onuragarri bat osatu dute, baina kanpo arloaren desoreka areagotu du.

Analisisa herrialdeka

AEBetan, 2005. urtean motelaldi arina jaso arren, hazkunde erritmoa bizia izan zen berriro eta epe laburrerako aurreikuspenak baikorrak dira. Barne produktu gordinaren urte arteko tasa %3,2 hazi zen. Tasa hori aurreko urtekoa baino zazpi hamarren txikiagoa bada ere, epe ertaineko hazkunde potentzialetik oso hurbil dago. Ekonomiaren hazkundean hauteman den apaltzeak ez du adierazi nahi ekonomia horretan joera aldaketa gauzatu denik, 2006ko lehen hilabeteen bilakaerak garbi utzi duenez, zeren eta hazkunde tasaren beherakada urteko azken hiruhilekoan bakarrik gertatu baitzen. Hain zuzen ere, hiruhileko horretan nabaritu ziren bereziki urakanen aldiak herrialdeko hegoaldean utzi zuen hondamendia. Hala eta guztiz ere, 2005. urtean lortutako gehikuntza tasa garrantzitsua izan zen, familien aberastasunak izan zuen gehikuntzari esker, higiezinaren eta finantza aktiboaren balio irabaziaren ondorioz, eta lan merkatuaren egoera onari esker.

2005eko urteko txostena

Horiek horrela izanda, barne produktu gordinaren hazkundera barne eskariaren sendotasunak eragin zuen, beste urtebete batez, kanpo saldoak hazkunderari hiru hamarren baino kendu ez zizkion bitartean, aurreko urteko murrizketa zazpi hamarrenekoa izan zen bitartean. Askoz ere orekatuagoa den hazkunde erdu honetan, kontsumo pribatuaren igoera azpimarratu behar da, berriro sendotasun handia erakutsi zuelako. Halaber, inbertsioak, bereziki ekipamenduan eta softwarean eginikoak, bilakaera bikaina izan zuen, %8tik gorako tasari eutsi ziolako. Kontsumo publikoa, berriz, laugarren urtez jarraian gutxiago hazi zen, defentsako gastua kontrolatzeko neurrien ondorioz. Izan ere, gastu horiek 2003. urtean %9aren inguruan haztetik 2005ean %1,7 igotzera mugatu da.

Kanpo eskariari dagokionez, esportazioak gutxiago hazi ziren, baina %7,0aren inguruko hazkunde erritmo sendoa erakutsi zuten berriro. Inportazioak, berriz, AEBen eta Asiaren artean merkataritzan dagoen harreman sendoaz baliatu ziren arren, gutxiago areagotu ziren (%6,1). Kanpo arloaren ekarpena hobetu bazen ere, kontu korronteko defizita barne produktu gordinaren %5,8 izatera iritsi zen, aurreko urteko balioa puntu erdi batean gaindituz. Hala eta guztiz ere, desoreka handi horrek ez dirudi eraginik izan duenik ekonomian, ez ekoizpen alorrean ez bertako diruaren balio galeran, zeren eta, lehenago adierazi den bezala, defizit hori Asiako herrialdeetatik iritsitako kapitalaren sarrerarekin orekatzen baita.

Enplegu sorrerak bilakaera ez oso bizia baina iraunkorra erakutsi zuen. Langabezia tasa hiruhilekoz hiruhileko murriztu zen %5,0an kokatu arte, 2001. urtetik inoiz jaso den maila apalena baita. Azkenik, inflazio tasa %3,4ra iritsi zen, 2004ko batez bestea zazpi hamarrenetan gaindituz. Hala ere, energiaren eta elikagai freskoen eragina kentzen bada, azpiko KPI indizea %2,2ko tasa apalagoetan kokatu zen.

Lau urtez hazkunde tasa oso txikiak jaso ondoren, Japoniak sendotasun iraunkorra erakutsi zuen 2005. urtean eta %2,6ko tasa lortu urteko batez bestean, hots, aurreko urtekoa baino hiru hamarren gehiago hazi zen. Azpimarratu behar da hazkunde osieran gauzatu zen aldaketa, kanpo eskarian oinarritu beharrean, barne eskarian lortu baitzuen bere indarra, zenbait urtez hazkunde kanpo arloaren sendotasunean oinarritu eta gero. Japoniako ekonomiaren egituraren gertatu den aldaketa horren ezaugarria kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasuna da, 2003. urtean hasitako susperraldia finkatu baitzuten. Kanpo arloak, berriz, hamarren batzuk gehitu zizkion barne produktu gordinaren urteko hazkunderari, baina aurreko urteetan baino gutxiago, batez ere esportazioak zertxobait moteldu zirelako. Hala ere, esportazioak oraindik %7,0 areagotu ziren aurreko urteko datuen aldean.

Aurreko emaitza positibo horietaz gain, enpresen sendotasuna, kredituaren hazkundera eta lan merkatuaren joera ona aipatu behar dira. Ezaugarri horiek ez ziren hauteman aurreko susperraldietan, hala nola 1992-1996 aldikoan, eta Japoniako ekonomiaren susperraldia egonkorra eta iraunkorra izango dela pentsatzeko aukera ematen dute.

Prezioen bilakaera konpondu gabeko arazoa izan zen berriro. Hilabeteen zehar, kontsumoko prezioen indizeak etengabe egin zuen behera, azaroan %-0,8ko tasa lortu arte. Urteko batez bestean, prezioen jaitsiera %-0,3 izan zen. Elikagai freskorik gabeko indize orokorra tasa positiboetara hurbildu zen urtarrilean eta, horren ondorioz, Japoniako Banku Zentralak deflazioaren amaiera iragarri zuen 2006. urterako. Hori dela eta, moneta politika biguna, interes tasak zerotik hurbil mantendu zituen, amaitutzat jo zuen. Azkenik, lan merkatuan, langabezia tasa hiru hamarrenetan jaitsi zen 2004ko tasaren aldean.

2001. urtetik, Txina ekialdeko Asiaren hazkundera bultzatu duen herrialdea izan da, bertako gobernuak aurreikusten zituen gehikuntza tasak nabarmen gaituz. 2005. urtean, ekonomia horrek %10,2ko hazkundera lortu zuen, aurreko urtean jasotakoaren antzekoa. Txinako BPGren hazkundera aparta da eta azken bost urteko batez bestean %9,5era iritsi da. Horrek kezka eragin du bertako gobernuan, ekoizteko ehunean sortu daitezkeen desorekengatik eta natura baliabideen erabilera gehiegizkoak herrialdean utzi ditzakeen ingurugiroko ondorio garrantzitsuengatik.

Barne produktu gordinak 2005ean izan zuen gehikuntza barne eskari sendoan eta kanpo saldoan oinarritu zen. Barne eskariaren bultzagile nagusia inbertsioa izan zen eta kanpo arloan inportazioen hazkundera ia hogeit puntutan murriztu zen aurreko urteko emaitzaren aldean, neurri batean kanpotik inportatutako ekoizkinak herrialdean bertan ekoizten hasi zirelako. Esportazioek, ordea, hazkunde garrantzitsua jaso zuten eta 2003 eta 2004 urteetako mailara iritsi ez baziren ere, urte horietan %35 baino gehiago areagotu baitziren, ia %30eko hazkunde garrantzitsua lortu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, merkataritzako superabita 2004an izandakoa baino hiru aldiz handiagoa izan zen eta 102.000 milioi dolarretara hurbildu, hots, BPGren %4,6an kokatu zen.


Europako ekonomiak %1,7ko gehikuntza tasa jaso zuen 2005. urtean, aurreko urtekoa baino sei hamarren txikiagoa, beraz. Emaitza horrek garbi uzten du Europar Batasuna osatzen duten ekonomia eremu nagusiek erakutsi zuten bizitasun eza. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilekotik aurrera, suspertzeko joera hauteman da ekonomian, 2006. urteko lehen erdian jarraipena izan duena.

2005eko urteko txostena

Inbertsioaren sendotasuna eta kontsumo publikoaren egonkortasuna izan ziren barne eskariaren oinarri nagusiak. Aitzitik, kontsumo pribatuak gero eta hazkunde txikiagoak jaso zituen, kontsumitzaileen konfiantza faltaren ondorioz eta lan merkatuaren bilakaera ahularengatik. Kanpo arloak, berriz, portaera txarragoa izan zuen, barne produktu gordinaren hazkundeari ekarpen hutsala egin ziolako. Izan ere, bai esportazioen hazkundera bai inportazioena moteldu ziren, nahiz eta azken hauek gehikuntza tasa sendoagoa jaso zuten. Hala eta guztiz ere, langabezia tasa emeki-emeki gutxitu zen eta %8,7ra murriztu, 2004. urteko datua lau hamarrenetan beheratuz eta 2001. urtetik inoiz jaso zen emaitzarik onena lortuz. Langabezia tasak ez bezala, inflazioak goranzko joerari eutsi zion (%2,2) eta urteko batez bestean hamarren batean gainditu zuen 2004. urteko tasa.

BPGren bilakaera zenbait herrialdetan

5. irudia



Iturria: Eurostat.

Alemaniak %0,9ko hazkunde ahula lortu zuen 2005. urtean, aurreko urtekoa baino hiru hamarren txikiagoa baita, baina 2002an eta 2003an izandakoak baino hobea, urte horietan hazkunde tasa negatiboa izan zelako. Urteko hazkundera Alemaniako ekonomia ziklo onetan lortutakoetatik oso urrun egon arren, herrialde horretako gobernu berriak, Kantzilerra Angela Merkel delarik, susperraldia estreinatu zuen eta badirudi sendotzeko bidean dagoela, 2006ko lehen hilabeteetan

argitaratutako datuen arabera. Hazkunde horren oinarrian esportazioen erritmo bizia dago, Alemania munduko herrialde esportatzaile nagusien artean dagoela egiaztatuz. Hain zuzen ere, herrialde hartako merkataritza superabita %3tik gora areagotu zen 2004. urtearen aldean. Alde negatiboan kontsumoa kokatu zen, bereziki kontsumo pribatua, laugarren urtez jarraian emaitza etsigarria jaso zuelako, %0tik hurbil dauden tasak lortuz. Inflazioa, berriz, %1,9ko tasan jarri zen, 2004ko datua hamarren bat gaindituz eta bigarren urtez goranzko joera erakutsiz, nahiz eta egonkortasuneko helburua ondo betetzen duen. Azkenik, langabezia tasa egonkor mantendu zen %9,5ean bigarren urtez jarraian, BPGren hazkunde tasa apalaren ondorioz. Izan ere, adituen ustez Alemaniako ekonomiak gutxienez %2 hazi behar du lanpostu berriak sortu ahal izateko.

Frantzia, ekonomiaren susperraldiak ez zuen sustrairik bota eta behar bezalako oinarririk ez zuen hazkundera hauteman zen herrialde horretan. Zehazkiago adierazita, bertako ekonomiak %1,2 areagotu zuen bere barne produktu gordina urteko batez bestean, aurreko urteko emaitzara iristeko puntu bat baino gehiago falta zitzaioela. Are gehiago, kontsumo publikoak eta kontsumo pribatuak moteltzeko joera erakutsi zuten urtean zehar. Kanpor arloak, bere aldetik, zenbait hamarren kendu zizkion hazkunderari hirugarren urtez jarraian, esportazioak gutxiago hazi zirelako inportazioek, moteltzeko joera izan zuten arren, gehikuntza tasa handiagoa jaso zuten bitartean. Prezioen atalari dagokionez, 2005. urtean kontsumoko prezioen indizea %1,9an kokatu zen, aurreko urteko tasa lau hamarrenetan beheratuz eta prezioen igoera egonkortzeko helburua betetz. Azkenik, langabezia tasak hamarren bat gutxitzea lortu zuen, aurreko urteko %9,6tik 2005eko %9,5era.

Erresuma Batuak atzean utzi zuen urte ekonomiko oso dinamiko bat bere hazkunde tasak nabarmen gutxitzeko. Hain zuzen ere, 2004an %3,3 hazi bazen ere, 2005ean %1,9 baino ez zuen bere ekonomia areagotu. Emaitza horren oinarrian, barne eskariaren geldotze nabarmena dago, aurreko urteko datuaren aldean bi puntu galdu zituelako. Bereziki kontsumo pribatua, 1993 eta 2004 urteen arteko aldian ekonomiaren oinarri nagusietarikoak izan baitzen, oso urrun gelditu zen azken hamarkadan lortutako emaitzetatik, %1,4 baino ez baitzen hazi 2005ean. Kontsumo pribatuaren moteltze hori, neurri handi batean, higiezinaren salneurriaren igoera txikiagoaren ondorioa izan zen, Erresuma Batuan gainontzeko herrialde industrializatuetan baino eragin handiagoa izan zuelako. Inbertsioak ere antzeko bilakaera motela erakutsi zuen, batez ere enpresen marginak estutu zirelako, lehengaien kostu handiagoaren ondorioz. Horregatik guztiarengatik, barne eskariaren motelaldia kanpo arloaren ekarpen positiboak orekatu behar izan zuen, 1995etik jaso den lehena, esportazioen bizkortzeari esker. Prezioen bilakaerari dagokionez, adierazi behar da Europako Banku Zentralak ezarritako helburua hamarren bakar batean gainditu zutela. Are gehiago, energiako ekoizkinen garestitzea ez bada kontuan hartzen, prezioen bilakaera askoz ere positiboa izan zen. Azkenik, langabezia tasa %4,7an mantendu zen aldaketarik gabe, azken hamar urteko langabezia tasa txikiak finkatuz.

2005eko urteko txostena

Italiak, azkenik, geldotasuneko irudia eskaini zuen, bertako ekonomiak gehikuntza hutsala jasoz. Hazkunde ezak baieztatu zuen italiar ekonomiaren oinarri sendo baten falta eta egiaztatu kontsumo pribatuaren okertzea. Horiek horrela, barne eskariak, kontsumo ahulak bultzatuta, inbertsioaren emaitzak txarrak, berriro tasa negatibotan kokatu baitzen, nozitu behar izan zuen. Kanpo eskariak, berriz, azken hamarkadan -2004. urtean izan ezik, urte hartan ez baitzion ezer kendu hazkundeari izan zuen BPGren gehikuntzari hamarrenak kentzeko joera berreskuratu zuen. Beste aldetik, prezioak ez ziren gehiegi hazi eta kontsumoko prezioen indizea %2,2an kokatu zen, 1999. urtetik aurrera jasotako apalena baita. Azkenik, langabezia tasak behera egin zuen eta %7,7an ezarri, azken hamarkadako baliorik txikiena.

Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiak laurogeita hamarretako erdialdean hasi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion eta 2005. urtean %3,5eko urte arteko hazkunde tasa jaso, 2001. urtetik lortu duen tasarik garaiena baita. Barne produktu gordinaren gehikuntza garrantzitsu bat eskuratzeaz gain, ekitaldi horretan enplegua sortzeko erritmo bizia ere lortu zen eta baita lehen aurrekontu superabita ere hogeita hamar urtetan. Joera positibo horretatik aldenduta aurkitzen dira gero eta sakonagoa den merkataritza defizita, etengabe igotzen den inflazio aldea eta ekoizkortasun irabazi hutsalak, 2004ko emaitzen aldean are txikiagoak izan baitziren.

Espainiako ekonomiaren hazkundeak ibilbide gero eta bizkorragoa erakutsi zuen. Joera horretan, behin berriro, nazio eskariaren bizitasuna izan zen oinarria, barne produktu gordinaren hazkundeari bost puntu baino gehiago ekarri baitzion, kanpo arloak indarra kentzen zion bitartean. Horiek horrela, ekonomiaren jarduera batez ere kapital eraketa gordinaren bizkortasunak bultzatu zuen, 2003an hasi zuen goranzko joerari eutsi baitzion. Are gehiago, inbertsioak gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu zituen ber bi osagai nagusietan, ekipamendurako ondasunetan -bereziki ekoizkin metalikoak eta makinerian- eta eraikuntzan. Barne eskariaren gainontzeko osagaiek ere portaera baikorra erakutsi zuten. Izan ere, kontsumo pribatuak %4,2ko gehikuntza egonkorra izan zuen bigarren urtez jarraian, neurri batean errenta erabilgarriaren hazkundeari esker, %3tik gora hazi baitzen, kontsumoko prezioak areagotu ziren arren. Administrazio Publikoen kontsumoa puntu bat eta erdi apaldu bazen ere, %4,8ko hazkunde tasa jasotzea lortu zuen, hots, azken hamar urteetako batez besteko balioa (%4,0) gainditu zuen, baina ez zen iritsi 2004an lortutako gehikuntza tasa garrantzitsura (%6,3). Moteltzeko joera arin horren atzean, arlo publikoko soldatapekoen ordainketaren erritmo galera eta ondasun eta zerbitzuen erosketak izan zuen moteltzea aipatu behar dira arrazoi nagusi gisan.

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005
Azken kontsumoko gastua	3,2	3,3	4,7	4,3
-Familien gastua kontsumoan	2,8	2,8	4,2	4,2
-Administrazioaren gastua kontsumoan	4,5	4,8	6,3	4,8
Kapital eraketa gordina	3,4	5,3	5,1	6,9
-Kapital finkoaren eraketa gordina	3,4	5,9	5,0	7,0
-Izakinen aldaketa(*)	0,0	0,0	0,0	0,0
Nazio eskaria (*)	3,3	3,8	4,9	5,2
Esportazioak	2,0	3,7	4,1	1,5
Inportazioak	3,7	6,2	9,6	7,0
BPG	2,7	3,0	3,2	3,5
Nekazaritza eta arrantza	0,4	-0,7	1,9	-10,0
Energia	0,8	4,5	2,2	3,8
Industria	-0,1	0,9	0,4	0,3
Eraikuntza	6,3	5,1	5,1	5,4
Zerbitzuak	3,0	2,9	3,6	4,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,3	6,6	4,4	5,7
Gogoratzekoak:				
-Kontsumo prezioen indizea	3,5	3,0	3,0	3,4
-Enplegua	2,3	2,4	2,6	3,1
-Administrazio publikoen defizita (BPGren %a)	-0,3	0,0	-0,1	1,1

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Azken urteetan Espainiako ekonomiak izan duen joera nagusiei jarraituz, kanpo saldoak berriro kendu zizkion puntuak barne produktu gordinaren hazkundeari, oraingo honetan 1,7 puntu, 2004. urtean bezala. Ekarpen negatibo hori esportazioen ahultasunaren ondorioa da, batez ere ondasunen esportazioena, kanpoko testuinguruan munduko merkataritzaren bizitasuna moteltzen zen une batean eta helburuko merkatu nagusietan geldotasuna zabaltzen zenean. Aitzitik, Espainiako barne eskariaren bizitasunak inportazioen erritmoari eustea ahalbidetu zuen, indar apur bat galdu bazuten ere. Aurreko guztiaren ondorioz, Espainiako ekonomiak munduko gainontzeko herrialdeekin duen finantza egoera okertu zuen, BPGren %6,5era iritsi arte.


2005eko urteko txostena

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore nagusiek berriro erakutsi zuten hedatzeko joera garbia, salbuespena nekazaritza eta arrantza izan zelarik, %-10,0eko beherakada jaso baitzuen. Lehen arloaren datu hori azken hamar urteetako txarrena da eta neurri batean lehorreak eragindako ekoizpenaren beherakadaren ondorioa. Aitzitik, eraikuntzak ia ez zuen makaltzeko inolako zantzurik erakutsi, hamar urteko hedaldiaren ondoren, haietatik zortzitan %5aren gainetik haziz. Zerbitzuek, bereziki merkaturatzen direnek, beren hazkunde erritmoa areagotu zuten hirugarren urtez jarraian. Industriak indarra galdu zuen berriro eta hazkunde txikia jaso zuen.

Enpleguari dagokionez, ekonomiaren une gozoak bere isla izan zuen lan merkatuan eta 2003. urtean hasitako bizkortze arinak jarraipena izan zuen, enplegua sortzeko egitura aurreko bi urteetako bezalakoa izan zelarik. Hain zuzen ere, enplegu maila, 2005. urtean sortu ziren lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %3,1 gehitu zen, aurreko urtean baino bost hamarren gehiago, beraz. Horren ondorioz, ia 548.000 lanpostu garbi sortu ziren. Gehikuntza horren oinarrian eraikuntzaren bizitasuna dago, bi puntutik gora igo baitzuen bere hazkunde tasa. Neurri txikiagoan, zerbitzuek ere lagundu zuten enpleguaren hazkundera. Azkenik, industriak eta lehen arloak gehikuntza tasa hutsalak jaso zituzten, bi arloetan %0tik hurbil. Beste aldetik, eta biztanleria aktiboaren inkestak argitaratu dituen datuen arabera, langabezia tasa %9,2an kokatu zen, aurreko urteko datua ia puntu bat eta erdi jaitsaraziz.

Prezioen bilakaerari dagokionez, prezioen indizea %3,4an amaitu zen 2005. urtean, aurreko bi urteetan jasotako tasak lau hamarrenetan gaingiduz. Goranzko joera hori, alde batetik, barne eskariaren sendotasunaren ondorioa izan zen, eskariaren aldetik erantzuteko behar zen ahalmena ez zuelako beti aurkitu, eta, beste aldetik, energia alorreko zenbait ekoizkinek jaso zuten garestitze handiaren ondorioa. Azpiko inflazioak, berriz, gorabeherak izan zituen urtean zehar eta azkenean 2004ko balio bera jaso zuen 2005ean ere, hau da, %2,7. Eurogunearekin alderatuta, prezioak azkarrago hazi ziren Espainian eta bi lurralde horien arteko inflazio tarte 1,2 puntuetara zabaldu zen, hiru urtez tarte hori murrizten egon ondoren.

Arlo publikoari dagokionez, Administrazio Publikoek, lehenengo aldiz hogeita hamar urteetan, barne produktu gordinaren %1,1eko superabitarekin itxi zuten 2005. urtea, hots, 3.536 milioi euroko superabitarekin. Gogoratu behar da urte horretako irailean Estatuak 1.092 milioi euroko aurrerakina onartu zuela autonomia erkidegoentzat osasuna hobeto finantzatzeko. Aparteko eragiketa hori ez bada kontuan hartzen, superabita 4.628 milioi eurokoa izango zen. Superabit horri esker, Administrazio Publikoek zor publikoa murrizten jarraitu dezakete. Hain zuzen ere, 2005. urtean zor bizia BPGren %43,4ra jaitsi zen, Euroguneko batez bestean %72an dagoen bitartean



Iturria: Eurostat

2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

2.1 Ekoizpen arloak

Sarrera

EAEko ekonomia jarduera maila altuko bere historiako aldi luzeenetarikoa ari da garatzen gaur egun, dagoeneko hamabi urtez jarraian %2aren gaineko tasak lortu baititu, epealdi osorako batez besteko hazkundera %3,9 delarik. Are gehiago, 1995. urtetik EAEko barne produktu gordina Euroguneko batez bestearen gaintik igo da etengabe. Gertakari horrek, lehendabizi, lurralde horrekiko bat egitea eta, gero, berarekiko aldea zabaltzea ahalbidetu du. Une hauetan batez besteko hori %25ean gainditzen du.

Analisisa 2005. urtean fokatzen bada, EAEko ekonomiaren barne produktu gordina %3,9 hazi zen urte horretan. Azpimarratu behar da ekoizpen jardueraren hazkundera erritmoa zertxobait areagotu zela aurreko urtean lortutako %3,6ko gehikuntza tasaren aldean. Horiek horrela izanda, baieztatu daiteke lehengaien garestitzeak eta nazioarteko krisiek eragin zituzten arriskuak ez zirela oztopo gairik izan EAEko ekonomiak, bereziki, eta munduko ekonomiak, oro har, hedatzeko joerari jarraitu ahal izateko.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2004	2005	2004	2005	2004	2005
1.- Lehen arloa	29,9	-11,5	1,5	-3,5	28,4	-8,0
2.- Industria	2,9	4,4	0,9	-0,9	2,0	5,3
3.- Eraikuntza	4,4	5,3	5,1	4,0	-0,7	1,3
4.- Zerbitzuak	3,2	3,6	2,8	3,5	0,4	0,1
GUZTIRA	3,6	3,9	2,5	2,1	1,1	1,8

Iturria: Eustat

Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren arlo guztiek, nekazaritza eta arrantza izan ezik, hazkunde tasa positiboak jaso zituzten. Lehen arloak, oso gorabeheratsua baita hala eguraldiaren mendekotasunari dagokionean nola merkatuaren baldintzei dagokienean, %-11,5eko beherakada izan zuen 2005. urtean. Industriak, berriz, bizitasun handia erakutsi zuen barne eskariaren bultzada indartsuari eta esportazioen bilakaera onari esker. Beste aldetik, eraikuntzak %5,3ko hazkundera lortu zuen eta oso paper garrantzitsu bat jokatu zuen berriro ekonomiaren norabidean, 2005. urtean zehar hazkunde tasa handiena jaso zuen ekoizpen arloa izan zuelako. EAEko zerbitzuen arloak, azkenik, hazkunde tasa altuari eutsi zion eta zertxobait areagotu zuen aurreko ekitaldietakoa, urte arteko gehikuntza tasa %3,6an kokatu baitzuen.

Lehen arloa

Nekazaritzaren ekoizpenak emaitza onak izan zituen 2005. urtean, aldakuntza tasa %1,3 izan baitzen. Horixe egiaztatzen dute erremolatxaren, neguko zerealen eta ardoaren uztei buruz bildu diren datuek. Abeltzaintzan, ordea, emaitzak oso txarrak izan ziren eta ekoizpenak nabarmen egin zuen behera. Azkenik, basogintzan datu onak jaso ziren urte osoan zehar.

Arrantza arloaren ekoizpena %-42,3 murriztu zen 2005. urtean. Beherakada horren arrazoia antxoaren arrantzategietan hauteman den gehiegizko ustiaketa da, geldialdi biologikoa ezartzeko akordioa bultzatu zuena. Antxoa bezalako espezieak harrapatu ez izana ez zen orekatu balio gutxiago duten espezien arrantza handiekin. Hala eta guztiz ere, beheraka garrantzitsu hori zergatik gertatu zen azaltzeko orduan, kontuan hartu behar da 2004. urtean arrantzaldia aparta izan zela, EAEko ontziak Kantauri itsasoko arrantza tokietara itzuli zirelako.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

7. TAULA

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2003	2004	2005	2003	2004	2005
Nekazaritza eta arrantza	-5,7	29,9	-11,5	-1,7	4,8	-2,4
- Nekazaritza	-4,4	21,0	1,3	-2,4	7,0	5,4
- Arrantza eta akuikultura	-8,8	49,8	-42,3	-0,1	-0,3	-21,3

Iturria: Eustat.

2005eko urteko txostena

Harrapaketa txikiak izateak eragina izan zuen prezioen bilakaeran, aurreko urtean jasotako balioak aise gainditu zituztela. Izan ere, unean uneko prezioetan arrantza jarduerak jaso zuen beherakada harrapaketen bolumenaren erdia baino ez zen izan.

Industria

Inguruneko ekonomia garatu gehienetan, 2004. urtean industria arloaren bilakaerak inflexio gunea erakutsi zuen, 2005. urtean moteltzeko joera islatzen zen bitartean. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko industria urrun zegoen apaltzeko joera horretatik eta %4,4ko hazkunde tasa lortu zuen, hau da, aurreko urteko gehikuntza tasa puntu bat eta erdian gainditu zuen, azken urteetako hazkunde joerari jarraipena emanez. EAEko industriaren hazkunde tasa inguruneko herrialdeena baino handiagoa izateko arrazoiak dira, alde batetik, EAEko esportazioen helburua diren ekonomietan, batez ere Espainiako ekonomian, inbertsioak izan zuen hazkunde positiboa, eta, beste aldetik, EAEko barne eskariaren bultzada bera. Egoera honek bitarteko kontsumoen eskaera areagotu zuen eta, halaber, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren gehikuntza garrantzitsua ere bultzatu zuen.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia					
	2000	2001	2002	2003	2004	2005
EB-25	4,8	0,7	-0,2	0,5	2,4	1,2
Eurogunea	5,2	2,6	-0,3	0,3	2,2	1,3
Alemania	6,3	1,1	-1,4	0,6	3,4	2,9
Frantzia	4,2	2,1	0,5	1,8	1,7	2,0
Erresuma Batua	1,9	-1,5	-2,0	-0,3	0,8	-1,8
Italia	2,1	-0,7	-0,8	-2,3	1,3	-2,3
Espainia	4,2	3,3	0,0	1,4	0,6	0,8
EAE	8,5	2,1	0,9	1,2	2,9	4,4
AEB (*)	4,3	-3,5	0,1	0,6	4,1	3,3
Japonia (*)	5,4	-6,3	-1,1	3,0	5,3	1,2


(*)Industriaren ekoizpena

Iturria: Eurostat, INE (Espainia), Eustat (EAE) eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa (AEB eta Japonia).

EAEko industriak urtean zehar erakutsi zuen bilakaerak hazkundera areagotzeko joera garbia marraztu zuen hiruhilekoz hiruhileko. Industriaren balio erantsiaren bilakaera bat etorri zen IPI indizeak izan zuen joerarekin. Era berean, adierazle honek sendotasun handiagoa izan zuen 2005. urtean EAEn ekonomia nagusietan baino.


Industriaren bilakaera alderatua

7. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Eustaten datuetan oinarrituta.

EAEko industria produkzioaren indizeak izan zuen ziklo bilakaeraren barruan, ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen direnean sortzen diren talde guztiek hazkundera lortu zuten 2005. urtean. Energiaren eta ekipamendurako ondasunen ekoizpena izan ziren bizkortze garrantzitsuena jaso zutenak eta hauen ondoren kontsumoko ondasunen eta bitarteko ondasunen bilakaerak hobera egin zuen. Berriki martxan jarri diren enpresa zenbait indize orokorrean sartu izanak azaldu dezake, neurri batean, industriaren adar batzuek erakutsi duten bilakaera bikaina.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuen arabera.

Industriaren portaera zehazkiago aztertuta eta horretarako Eustatek jardueraren 16 adarretarako argitaratu dituen balio erantsiaren estimazioa erabilia, agerian gelditzen da industriaren balio erantsiari ekarpen handiena egiten duten adarretatik material elektrikoak, metalurgia eta artikulua metalikoak eta garraio materialak aurreko urtekoak baino emaitza hobekiago jaso zituztela. Aitzitik, makineriak, energiak eta kautxua eta plastikoak zertxobait gutxitu zuten bere hazkunde erritmoa 2004. urteko datuen aldean, baina oraindik gehikuntza tasa garrantzitsuak izan zituzten. Gainontzeko adarretatik, azpimarratu behar da mineral metalikoak eta ez-metalikoak eta industria kimikoak izan zuten bizkortzea, aurreko urteko emaitzak baino gutxienez hamar puntu gehiagoko tasak lortu zituztelako. Halaber, deigarria da ehungintza eta jantzigintzak eta larrugintza eta zapatagintzak jaso zuten beharokada nabarmena, nahiz eta EAEko industriaren egituraren jardueraren horiek pisu gutxi duten.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

9. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005(a)
Metalezko eta ez metalezko mineralak	-17,3	-10,0	21,3
Janari industria	0,2	-1,6	2,3
Ehungintza eta jantzigintza	-23,2	4,6	-12,0
Larrugintza eta zapatagintza	-19,7	11,2	-1,2
Egurraren industria	-4,6	-7,3	4,1
Papera, edizioa eta arte grafikoak	-1,9	3,1	4,6
Petrolioaren fintzea	42,1	26,0	-3,2
Industria kimikoa	1,8	-3,0	8,7
Kautxua eta plastikoa	5,2	5,8	4,8
Industria ez-metalikoa	7,7	-5,9	4,6
Metalurgia eta metalezko artikulua	-2,6	-0,5	0,7
Makineria	-2,9	5,2	4,3
Material elektrikoak	3,2	6,5	13,1
Garraio materiala	9,6	0,0	6,9
Bestelako enbriaturak	3,9	0,0	1,4
Energia elektrikoak gasa eta ura	8,8	23,1	11,4
Industria guztira	1,2	2,9	4,4

(a) Aurrerapena.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuen arabera.

2005eko urteko txostena

Eraikuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzak jarduera erritmo garaiari eutsi zion 2005. urtean zehar, aurreko urteko emaitza nabarmen gaituz, eta berriro izan zen ekonomiaren bizkortzea gehien bultzatu zuen sektorea. Arlo honen hazkundera lortzen (%5,3) Europako Banku Zentralak ezarri dituen interes tasa apalek lagundu zuten, etxebizitzaren prezioek erakutsi zuten goranzko joerak eraikuntzan inolako eraginik izan ez zuten bitartean.

Hedatzeko joera agerian gelditzen da eraikuntzaren jarduera neurtzen duten adierazle ezberdinen bilakaera aztertzen bada. Hala SEOPANek lizitazio ofizialaz argitaratutako datuek nola Eustatek estimatu dituen eraikuntza arloaren ekoizpen indizearen datuek eraikuntzaren egoera ona egiaztatzen zuten. Bi estatistika iturri horiek urte arteko aldakuntza tasa altuak eskaini zituzten 2005. urterako, batez ere eraikuntzaren eraikuntzan. Hain zuzen ere, osagai horrek %24,2ko hazkundera izan zuten lizitazio ofizialean eta %9ko gehikuntza ekoizpenean, aipatutako estatistika horien emaitzen arabera. Obra zibilak ere hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituen, baina eraikuntzaren lortutako mailara iritsi gabe.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

10. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005
BEG bolumenaren indize kateatua	4,9	4,4	5,3
BEG uneko prezioak	16,7	9,8	10,5
Deflatoarea	11,8	5,4	5,2
Enplegua	6,5	5,1	4,0
Ekoizkortasuna	-1,6	-0,7	1,3
Ekoizpen balioa	5,9	6,6	8,2
- Eraikuntza	6,8	7,5	9,0
- Obra zibila	4,2	3,8	6,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuen arabera.

Enpleguaren ikuspegitik ere datuek sektorearen egoera ona egiaztatzen dute. Lehendabizi, eraikuntzako enplegua ekonomia osoarena baino gehiago hazi da azken urteetan. Beste aldetik, eraikuntza da, azken urteetan, enpleguaren sorreran bere pisua handitu duen ekoizpen jarduera bakarra.

Laburbilduz, eraikuntzak hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituen bere ekoizpen mailan eta enpleguan, baina zalantzak daude hazkunde horri era egonkor batean eusteko moduan egongo ote den, kontuan hartuta Eurogunean interes tasak igo eta igoko direla eta horrek eragin negatiboa izango duela higiezin merkatuan.

Zerbitzuak

Zerbitzuen arloak hazkunde erritmo egonkorra erakutsi zuen 2005. urtean, aldakuntza tasa %3,6ra iritsirik. Gehikuntza bizi horren eragile nagusia merkaturatzen diren zerbitzuak izan ziren. Arlo honetako azpisektore guztiek lagundu zuten gehikuntza tasa garrantzitsu hori lortzen, baina bereziki azpimarratu behar dira enpresei emandako zerbitzuak, bankuak eta aseguruak, eta ostalaritza, urte horretan hazkunde nabarmena izan zutelako.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005
BEG bolumenen indize kateatua	3,2	3,2	3,6
BEG uneko prezioak	6,4	6,7	6,6
Deflatoea	3,2	3,5	3,0
Enplegua	2,2	2,8	3,5
Itxurazko ekoizkortasuna	1,0	0,4	0,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuen arabera.

Sektorearen adierazleek, oro har, hobekuntza erakusten dute 2005. urtean aurreko urteko emaitzen aldean. Merkataritzako jardueraren analisian, kontsumo pribatuak berriro egin zuela hobera hauteman zen. Izan ere, hala barne merkataritzako indizeak nola azalera handietako merkataritza

2005eko urteko txostena

indizeak, biak Eustatek argitaratuak baitira, urte arteko hazkunde tasa positiboak jaso zituzten urteko batez bestean. Halaber, bi inkesta horiek adierazi zuten merkataritzako jardueraren hedapen iraunkorrak eragina izan zuela lan merkatuan, faktore horren eskaria positiboa eta garrantzitsua izan zelako.

Turismoak EAEn izan zuen bilakaerari dagokionez, Eustatek egiten duen establezimendu turistikoko hartzaileen inkestak emaitza onak eskaini zituen jarduera horretarako, 2005. urtean etorri ziren bidaiarien kopuruak eta betetako plazek gehikuntza garrantzitsuak izan zituztelako. Euskadi bisitatu zuten atzerriko turistak batez ere Frantziatik (%23,2) eta Britainia Handitik (%14) etorri ziren. Estatuaren barruan, autonomia erkidegoen osara ia aldaketarik gabe mantendu da azken urteetan, bisitari gehienak Kataluniatik, Madriletik eta Euskaditik bertatik etorri direlako. Aipatutako inkesta horren arabera, batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa izan zen eta ostatuaren betetze maila, plazatan neurtuta, %47,63ra iritsi zen, bi datu horiek 2005eko batez besteari dagozkiolarik. Bide beretik doaz Azterlan Turistikoen Institutuak Familitur eta Frontur bere inkestetan argitaratu zituen datuak. Inkesta horietatik eratortzen da Euskadik pisua irabazi zuela Estatuko autonomia erkidegoen artean, hala atzerriko turistek nola, bereziki, espainiar turistek beren egonaldietarako aukeratu duten helburu gisa.

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA, BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005
Zerbitzuak guztira	3,2	3,2	3,6
Merkatuko zerbitzuak	3,5	3,4	3,6
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	1,7	2,0	3,4
Merkataritza eta konponketa	3,4	5,5	2,4
Ostalaritza	0,8	0,0	3,3
Garraioak eta komunikabideak	5,3	4,6	3,3
Bankuak eta aseguruak	0,2	-5,2	3,8
Enpresentzako zerbitzuak	5,3	6,1	4,7
Administrazio Publikoa	0,7	1,8	3,2
Irakaskuntza	3,7	2,7	2,4
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	1,8	2,8	4,1
Zerbitzu pertsonalak	3,3	3,2	2,2
Etxeko zerbitzuak	2,0	1,4	10,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuen arabera.

Garraioari dagokionez, aipatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko aireportuen egoera ona. Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiak argitaratu dituen datuen arabera, Loiuko aireportua, penintsulako aireportuen artean, seigarren tokian kokatu zen 2005. urtean bidaiarien trafikoari dagoenez, aurreko urteetako emaitzen aldean erabiltzaileen kopuruak gorakada nabarmena izan zuelarik. Forondako aireportua, berriz, hirugarren tokian jarri zen berriro salgaien trafikoaren zerrendan, aurretik Madrilekoa eta Bartzelonakoa bakarrik zituelarik. Beste maila batean, Euskotren eta Bilboko Metroa bezalako enpresek emandako datuek adierazten dute mota horretako garraioa erabili zuten pertsonen kopuruak nabarmen egin zuela gora 2005. urtean zehar.

Lanpostuen sorreratik aztertuta, zerbitzuen arloak %3,5 areagotu zuen bere enplegua autonomia erkidegoan. Azpimarratzekoa da 2005. urtean, eta aurreko urteetako joerari jarraipena emanez, lanpostu gehien sortu zituzten adarrak higiezinaren jarduerak, informatikako enpresak eta garapen eta ikerketakoak izan zirela, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek argitzen dutenez. Oraingoz azpisektore horiek ez dute pisu handirik zerbitzuen guztizkoan, baina urtetik urtera garrantzia handiagoa ari dira hartzen. Hirugarren arloko beste osagai batzuek, hala nola merkataritzak, ostalaritzak eta enpresentzako jarduerak hazkunde tasa positiboak jaso zituzten, sektoreak 2005. urtean izan zuen bizkortzea egiaztatuz.

Azpimarratzekoa da salmentarako ez diren eta administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuek izan zuten hazkundera. 2005. urtean, jarduera horiek %3,4ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuten, azken urteetan sektore horrek inoiz lortu ez zuen tasa baita.


2.2 Eskaria

Sarrera

Hazkundearen bilakaera barne eskariaren gehikuntza garrantzitsu batean eta kanpo arloak barne produktu gordinaren hazkunderari eginiko ekarpen negatibo baina txiki batean oinarritu zen. Barneko eskariaren bizkortzea kapital eraketa gordinaren bultzada sendoan (%6,3) eta kontsumo pribatuaren maila nabarmenetan (%4,1) sostengatu zen. Azken urteetan, EAEko ekonomiaren eta inguruneko herrialdeen bizitasuna moneta politika oso hedakor batek sustatu du. Politika horrek gastua areagotu du eta finantza kostuak gutxitu. Bi aldagai horien bilakaeraren ondorioz, barne eskaria eta enplegua hazi dira. Hala eta guztiz ere, politika horrek eragin negatiboak ere izan ditu, hala nola aurrezki mailaren jaitsiera. Etxebizitzaren prezioek ezagutu duten garestitzea eta, horren ondorioz, familiek duten zorpetze mailaren igoera, neurri batean, kredituak lortzeko erraztasunetatik eratorri diren ondorioak dira.

BPG errealaren hazkundera eta eskariaren osagaiak eginiko ekarpenak

9. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustaten datuen arabera.

Gastua azken kontsumoan

2005. urtean, barneko azken kontsumoa %3,8 hazi zen, 2002tik jaso den tasarik txikiena baita. Hala ere, oraindik hazkunde tasa garrantzitsua da, aurreko urtean izandako maila baino lau hamarren bakarrik beherago dagoelako. Osagaiei erreparatuta, hala familien kontsumoak nola administrazio publikoenak 2004koak baino gehikuntza txikiagoak jaso zituzten, baina moteltzeko joera garbiagoa izan zen arlo publikoaren azken kontsumoan, urte arteko tasan %2,7ko igoera lortu baitzuen, aurreko urteko %3,5aren aldean.

EAEko kontsumo pribatuak hazkunde erritmo bizia erakutsi zuen 2005. urtean eta %4,1eko tasa lortu. Bilakaera on horren atzean, enpleguaren hobekuntza sendoa, aberastasun irabazia eta Europako moneta agintaritzak ezarritako interes tasa txikiak daude.

Merkataritzako indizeen bilakaera Eustatek argitaratu dituen datuekin aztertzen bada, hazkunde tasa positiboak ikusten dira 2005. urtean. Azpimarratzekoa da azalera handietako salmenten indizeak izan zuen gehikuntza bikaina, %9,3ra iritsi baitzen, batez ere elikagaiak ez diren ekoizkintetan lortua. Hedapen erritmo indartsu horrek EAEko familien azken kontsumoaren bilakaera positiboa agerian uzten du, ekonomiaren bilakaeran konfiantza dutela iradokiz.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

13. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005
Soldatapekoen ordainketa	6,1	6,1	7,8	6,8
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	3,9	4,4	4,0	4,5
Enplegua	1,9	2,2	2,5	2,1
Pentsioen kopurua (*)	0,8	0,8	1,1	1,9
Batez besteko pentsioa (*)	4,4	6,0	6,1	5,3
PFEZren diru bilketa	4,7	5,1	1,1	11,5
Banku arteko interes tasa (urte baterako Miborra)**)	3,5	2,3	2,3	2,3
KPI	3,7	2,8	3,0	3,3

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez besteak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan Harremanen Kontseiluaren, INEren, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

2005eko urteko txostena

Ondasun iraunkorren kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioak 2004koa baino portaera okerragoa izan zuen eta aldakuntza tasa negatiboa jaso. Joera hori neurri batean motorren matrikulazioak leundu zuen, 2005eko hilabete gehienetan inoizko zenbateko altuenak jaso zituelako. Gogoratu behar da erraztasunak eman zirela, araudiaren aldaketan bidez, ibilgailu horiek gidatu ahal izateko.

INEk argitaratzen duen familien aurrekontuei buruzko inkesta jarraituaren estimazioen arabera, EAEko familien kontsumoko gastua guztira %4,9 hazi zen 2005. urtean unean uneko terminoetan. Gastu osoaren bilakaera hori gainontzeko gastuak izeneko portaeraren ondorioa izan zen, bere hazkunde tasa %7,4 hazi zela estimatu baita. Aitzitik, familian kontsumitutako elikagaiak, edariak eta tabakoa biltzen dituen atalak %-4,6ko jaitsiera izan zuen aurreko urteko datuaren aldean. Inkesta berak hainbat galdera erabiltzen ditu ekonomiaren egoerarekin zerikusia duten alderdi jakin batzuei buruz familiek duten iritzia jakiteko. Zehazkiago, EAEko familien artean hilabetearen amaierara erraztasun maila batekin iristen ziren familien kopurua zertxobait murriztu zen 2005ean. Beste aldetik, 2005. urtea erosketa garrantzitsuak (etxebizitza erostea kontuan hartu gabe) egiteko une egokia zela pentsatzen zuten familien kopuruak ere behera egin zuen. Hala eta guztiz ere, ekonomiaren nondik norakoaz familiek duten iritzia biltzen duten aldagai subjektibo horien bilakaera onena jaso duten autonomia erkidegoen artean kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoa.

KONTSUMO EFEKTIBOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

14. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005
IPI kontsumo ondasunak. EAE	2,8	-0,6	-0,5	-0,2
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	2,3	0,5	0,0	0,2
Automobilen matrikulazioa	-10,3	2,6	3,9	-4,4
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	4,6	1,9	3,0	0,3
Txikizkako merkataritza (prezio finkoak)	5,6	2,8	4,3	1,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten, INEren eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak zertxobait apaldu zuen bere hazkunde tasa aurreko urteko mailaren aldean, baina batez besteko gehikuntza erritmoa garrantzitsua izan zen berriro, %6,3. Aurreko urteetan bezala, hau izan zen EAeko barne eskariaren osagairik hedakorrena. Are gehiago, hazkunde hori garrantzitsuagoa da kontuan hartzen bada 2005. urte osoan energiako salneurriek izan zuten garestitzea, nazioarteko merkatuetan petrolio gordinaren upelaren prezioak izan zuen igoerak bultzatuta.

Kapital eraketa gordinaren sendotasuna eskura dauden hainbat adierazleen bilakaera aztertuta egiaztatu daiteke. Eraikuntzan eginiko inbertsioak azken urteetako bizkortasunari eutsi eta, are gehiago, berau areagotu zuen 2005ean. Ekipamendurako ondasunen inbertsioari dagokionez, mota horretako ondasunen barneko ekoizpenaren portaera hedakorrak baieztatzen du hazkunde hori. Aurreko urtekoan baino gutxiago hazita, baina oraindik hazkunde tasa positibo bat jasota, ekipamendurako ondasunen inportazioek inbertsio mota honen sendotasuna baieztatu zuten. Beste adierazle esanguratsu batek, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak, alegia, hazkunde tasa altuak lortu zituen berriro, %12,1ean kokatu zelarik.

2005. urtean, egoitzetan eginiko inbertsioak eta ekoizteko inbertsioak kapitala erabiltzeko kostu txikia eskertu zuten, beste alderdi batzuen artean. Kostu txiki horri esker, finantzazioko prezioa inbertsioetan espero den errentagarritasuna baino txikiagoa da.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	4,9	5,0	7,5	6,3
Kapital finkoaren eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	6,2	6,9	6,4	6,3
IPI ekipo ondasunak:	-4,4	1,4	4,6	6,2
- IPI garraio materiala	4,7	0,0	5,2	3,8
- IPI makineria	-4,4	0,5	6,3	3,2
Ekipo ondasunen inportazioak	0,8	-3,8	18,2	2,8
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-10,2	9,5	14,9	12,1

Iturria: Eustat, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Ekonomia globalaren egoerarekin bat egiten, munduko merkataritzak bere hedapenari eutsi zion eta %7 baino gehiago hazi zen. Beraz, hiru puntutik gorako motelaldia izan zuen 2004ko gehikuntzaren aldean (%10,6). Hala eta guztiz ere, aurreko urteko sendotasun bera lortu ez bazuen ere, nazioarteko hazkundearen indarrak nabarmentzeko moduko tentsiorik gabe gainditu zuen petrolio gordinaren prezio altuek eta tokiko hainbat zailtasunak, hala nola Mexikoko Golkoaren kostaldean urakanek eragindako hondamendiak, Londreseko atentatuek edo Ekialde Hurbileko gatazkak, sortu zuten giro zaila. Aurreko guztia eragatik, 2006. urterako igurikapenak berriro aurreikusten dute hazkunde sendo bat merkataritzako salerosketetan. Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) prestatu dituzten aurreikuspenen arabera, nazioarteko merkataritza %9aren inguruan haziko da.

Mundua hedatzeko bidean dagoen testuinguru honetan, EAEko ekonomiak aurreko urteetan baino hazkunde orekatuagoa erakutsi zuen 2005ean. Izan ere, kanpo eskariak ekarpen negatiboa egin zion barne produktu gordinaren hazkunderari, baina ekarpen hori aurreko bost urteetako baino txikiagoa izan zen. Hain zuzen ere, zortzi hamarren kendu zizkion 2005ean, 2000. urtetik, hau da, BPGren hazkunderari ekarpen positiboa egin zion azken urtetik, izandako kenketa txikiena.

Horiek horrela, EAEkoa bezalako ekonomia batek, irekiera gradu handi batekin eta merkataritzako bazkide nagusiak Europako Batasuneko herrialdeak dituelarik, portaera positiboa izan zuen eta antzeko tasak jaso esportazioetan eta inportazioetan. Hala ere, tamaina ezberdina izan zuen Estatuko merkatuak eta atzerrikoak. Inguruneko herrialde nagusien barne eskariak erakutsi zuten egonkortasunak eta hazkunderak bere isla izan zuten inportazioen eskaeretan eta 2005. urtean %5,1eko aldakuntza tasa lortu, aurreko urteko tasa %4,9 izan zen bitartean. Halaber, bilakaera positibo horrekin batera, Estatuko gainontzeko herrialdeekin egindako merkataritzaren finkatzea gertatu zen, hazkunde handiagoa erakutsi baitzuen, atzerrira zuzendutako esportazioen gehikuntza tasa egonkorragoa izan zen bitartean.

Inportazioen guztizkoak, berriz, nolabaiteko moteltzea izan zuen, 2003. urtean hasitako goranzko ibilbidea amaitutzat joz. Hazkunde txikiagoaren jatorria atzerritik ekarritako inportazioek izan zuten apalaldian datza, neurri batean, Estatuko gainontzeko herrialdeetatik ekarritakoen gehikuntzarekin konpentsatuta gelditu baitziren. Izan ere, azken hiru urteetan Estatutik ekarritako inportazioak gero eta gehiago hazi dira.

KANPO SALDOAREN BILAKAERA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005(a)
Ondasun eta zerbitzuen kanpo saldoa guztira (*)	0,7	-0,9	-0,9	-1,3	-1,6	-0,8
- Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	8,8	1,7	-0,8	-0,8	4,9	5,1
Estatura	4,8	1,8	-1,3	-1,0	6,1	6,6
Atzerrira	13,8	1,5	-0,3	-0,6	3,4	3,3
- Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	7,8	3,0	0,5	1,2	7,3	6,0
Estatutik	3,3	3,7	3,1	1,0	4,9	5,8
Atzerritik	17,6	1,6	-4,3	1,8	12,0	6,3

(*) BPGri eginiko ekarpen puntuak.

(a) Aurrerapena.

Iturria: Eustat.

Beraz, esportazioen guztizkoak izan zuen bi hamarrenetik gorako susperraldiak eta inportazioen guztizkoak jaso zuen hazkunde erritmo txikiagoak barne produktu gordinaren hazkundeari ekarpen positiboa egitea lortu ez bazuten ere, kanpo saldoaren ekarpena aurreko urteetakoa baino txikiagoa izatea ahalbidetu zuten.

Ondorio horiekin bat egiten, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresariak atzerritik etorri zaien eskari zorroaren bilakaeraz eman duten iritziek ikuspegi zerbait baikorragoa eskaini zuten etorkizunari buruz. Kontsumitzaileen konfiantzak aldakuntza tasa negatibotan jarraitu bazuen ere, 2004. urte amaieran hasi zen hobetzeko joerak aurrera egin zuen. Are gehiago, hobetzeko joera hori askoz ere garbiagoa da 2006. urteko lehen sei hilabeteetan. Horrek guztiak iradokitzen du atzerrira zuzendutako esportazioak suspertu daitezkeela datozen hiruhilabeteetan. Estatuko merkatuan dauden salmenta aurreikuspenak ere hobetzeko bidean daude, atzerritik iritsitako eskariak berak baino hein handiagoan gainera. Eskarien hobekuntzak eta EAEko ekoizkinak erosten dituzten herrialde nagusietarako aurreikusten den hazkunde egonkorrak igurikapen baikorrak eskaintzen dituzte 2006. urtean aipatu diren bi merkatuetan.

2005eko urteko txostena

EAE-KO INDUSTRIAREN ESKARI ZORROA (*)

17. TAULA

	Guztira	Atzerrira
1993	-68,7	-51,3
1994	-9,8	-7,3
1995	4,4	5,9
1996	-14,0	-17,2
1997	5,4	2,6
1998	9,9	1,8
1999	-7,4	-20,5
2000	5,8	-0,8
2001	-7,7	-11,8
2002	-15,8	-21,4
2003	-23,4	-31,1
2004	-25,1	-29,3
2005	-15,9	-22,9

(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoaren arteko aldea).

Iturria: Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa.

2005. urtean munduko merkataritzak izan zuen moteltzeak bere eragina utzi zuen ia munduko ekonomia eremu guztietan. Lortu zuten erritmoa oraindik bizia izan zen arren, urte horretan bizi ziren gertakari geopolitikoek eta petrolio gordinaren garestitzeak sortu zuen ziurgabetasunak azkenean ekonomia eremu guztien eskaeretan eragina izan zuten.

Hain zuzen ere, ELGE eremuko ondasunen eta zerbitzuen inportazioen eskaria hiru puntu inguru murriztu zen eta %6ko gehikuntza tasan gelditu. Hazkunde txikiago honen eragileak Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen multzoa eta, bereziki, erakunde horretan parte hartzen ez duten herrialdeak izan ziren, bai batean bai besteetan inportazioen gehikuntza moteldu zelako. Hala ere, jaso ziren hazkundeak sendoak izan ziren oraindik eta ia guztiak %5aren gainetik kokatu ziren. Aipamen berezia merezi du Frantziak, bere inportazioen erritmoak aurreko bost urteetan izandakoa gaintitu zuelako.

ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOA EAE-REN HELBURU MERKATUETAN.

18. TAULA

1.- ELGE

Urte arteko aldakuntza tasak

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005(*)
ELGE	8,3	11,7	-0,2	2,4	4,1	8,8	6,0
AEB	11,5	13,1	-2,7	3,4	4,1	10,8	6,1
Japonia	3,7	8,5	0,9	0,9	3,9	8,5	6,2
Eurogunea	7,2	10,8	0,9	0,2	2,8	6,5	5,2
Alemania	8,6	10,2	1,2	-1,4	5,3	6,9	6,5
Frantzia	5,8	15,1	2,2	1,6	1,5	6,0	6,5
Italia	3,1	5,8	-0,2	-0,5	0,8	2,5	1,4
Erresuma Batua	7,9	9,0	4,8	4,8	2,0	6,6	5,9
Belgika	4,5	8,6	0,2	0,2	2,9	6,3	3,8
Holanda	5,8	10,5	2,2	0,3	2,0	7,8	5,1
Portugal	8,6	5,3	0,9	-0,7	-0,4	6,8	1,8
Gogoratzekoa:							
Munduko merkataritza	5,6	12,1	0,0	3,4	5,3	10,6	7,4
Esportazio ez energetikoak ELGEra	4,3	16,4	-3,4	2,6	1,6	11,8	5,2

(*)Aurrerapena.

Iturria: ELGE eta NDF.

2.- Garapen bidean dauden herrialdeak

Urte arteko aldakuntza tasa erreala

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
GUZTIRA	-0,4	14,5	2,9	6,4	12,1	17,4	12,0
Amerika Latinoa	-4,3	12,2	-0,6	-7,3	0,5	15,1	11,2
Asia	8,3	20,0	1,0	12,8	18,1	18,9	12,5
Ekialde hurbila	-1,9	9,6	8,5	5,0	5,3	18,2	16,9
Afrika	2,3	1,6	6,9	8,2	7,2	9,0	10,7

Iturria: NDF.

2005eko urteko txostena

Nazioarteko eskari horiek hor egonda, atzerrira zuzendutako EAEko esportazioak guztira eta termino nominaletan 14.225,3 milioi eurora iritsi ziren 2005. urtean, 2004. urteko 13.521,7 milioi euroen aldean. Beraz, urte arteko aldakuntza tasa %5,2 izan zen aurreko urteko batez bestearen aldean. Zenbateko hori ez zen iritsi 2004ko hazkunde tasara, baina esportazioen susperraldia finkatzeko balio zuen, 2001-2003 epealdian nozitu zuten narriaduraren ondoren. Inportazioen balioa, berriz, 14.492,2 milioi eurora heldu zen. Hazkunde tasa aurreko urtekoa baino hiru puntu txikiagoa izan zen, baina urte horretan bertan hasitako bizkortzen sendoko joerari jarraipena eman zion. Aldakuntza tasa horien ondorioz, atzerriarekin izandako ondasunen saldo nominalak ia 267 milioi euroko merkataritza defizita erakutsi zuen, hamarkada oso batez superabitak jasotzen egon ondoren.

ONDASUNEN SALEROSKETA ATZERRIAREKIN (*)

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Milaka euro				Tonak			
	Esportazioak		Inportazioak		Esportazioak		Inportazioak	
	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.	Guztira	Ez energ.
1994	30,3	32,8	15,8	32,9	2,4	12,2	-20,5	11,7
1995	11,4	13,4	17,4	27,9	-12,4	-2,3	-12,5	18,1
1996	14,0	13,7	0,6	-3,2	7,9	7,5	-3,8	-9,9
1997	31,7	32,4	10,4	12,2	11,1	13,0	3,8	22,0
1998	5,0	5,3	8,1	11,7	5,2	-5,0	15,5	5,4
1999	2,0	2,2	8,6	6,5	-7,3	5,0	-3,4	1,5
2000	17,7	15,3	37,1	21,0	7,7	12,9	22,3	11,8
2001	-2,3	-1,8	-3,0	1,5	-6,1	-5,1	-5,3	2,3
2002	0,3	2,0	1,5	1,2	-4,3	5,8	4,5	-3,6
2003	1,3	0,1	3,2	2,6	13,5	5,0	5,7	7,0
2004	14,6	13,5	19,8	15,6	9,6	1,6	11,0	5,3
2005(*)	5,2	5,0	16,2	5,2	-9,7	-4,2	1,3	-8,1

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.


Analisia energiaz bestelako merkataritzan fokatzen bada eta petrolioaren garestitzeak izan zezakeen eragina kentzen bada, energiaz bestelako esportazioak %5,0 areagotu ziren 2005. urtean, esportazioen guztizkoak izan zuen hazkunde bertsua lortuz. Energiakoak ez ziren inportazioak, berriz, %5,2 baino ez ziren hazi eta aurreko urtean jasotako tasa baino hamar puntu gutxiago gehitu ziren. Hala eta guztiz ere, azken hamarkadako hazkunderik hoberenatarikoa izan zen, kontuan hartzen ez bada 2004ko datu bikaina. Bilakaera horien ondorioz, energiaz bestelako saldoa, urteko batez bestean, berriro igo zen, 2004. urteko 3.201 milioi euroetatik 2005. urteko 3.339 milioi euroetara.

Esportazioak eta inportazioak salgaien prezioetan neurtu beharrean garraiatutako tonatan neurtzen badira, bi aldagai horien hazkundeak izan zuen moteltzeko joera askoz ere nabarmenagoa izan zen. Hain zuzen ere, esportazio guztiak, bolumenean neurtuta, %-9,7 murriztu ziren, 1995etik inoiz jaso den emaitza txarra baita. Beherakada horren atzean, energiako ekoizkin eta burdin galdaketa unitate gutxiago saldu izana dago. Inportazioei dagokienez, guztizkoak hazkunde positiboa lortu zuten arren, hazkunde hori 2001. urtetik aurrera inoiz jasotako txikiena izan zen. 2005eko moteltzea eragin zuen atal nagusia, esportazioetan gertatu zen bezala, metal arrunten salmenta txikiagoa izan zen, bereziki burdinarena.


Atzerrira bidalitako esportazioen urteko emaitzak ez ziren bat etorri helburuko herrialdeen inportazioek erakutsi zuten bizitasunarekin. Salbuespena Italia eta AEB izan ziren, bi herrialde horietan EAEko esportazioek hazkunde sendoak lortu zituztelako. Gainontzeko merkatu nagusien portaera, ordea, azken urteetan erakutsi zuten joeratik alendu zen. Izan ere, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua bezalako herrialdeen inportazio eskaerak areagotzen ziren bitartean, EAEko ekoizkinen salmenta herrialde horietan ez ziren gai izan bultzada horri erantzuteko. Are gehiago, Alemanian eta Erresuma Batuan ahultasun hori esportazioen jaitsiera bihurtu zen. Hala eta guztiz ere, eta esportazioen jaitsiera berri horrek merkatu kuotaren zati bat galdu dela iradoki badezake ere, 2006. urteko lehen hilabeteetan bildu diren emaitza onek eta eskari zorroz EAEko enpresariak eman dituzten iritzi baikorrek salmentak modu egokian handituko direlako ustea zentzuzkoa da. Aitzitik, AEBetako eta Italiako inportazioen aurrean, EAEk bere merkatu kuotari eusten eta, are gehiago, sendotzen jakin zuen.

2005eko urteko txostena


Esportazioak tonatan 10. irudia




Esportazioak eurotan 11. irudia



Inportazioak tonatan 12. irudi



Inportazioak eurotan 13. irudia



Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta

MERKATU GARRANTZITSU ZENBAITEK INPORTATUTAKO ONDASUNAK (*)

20. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005(**)
Alemania	6,8	4,6	21,5	1,3	-4,5	3,0	6,6	9,0
EAEtik	9,0	1,5	15,6	-8,5	2,3	2,3	17,7	-1,2
Frantzia	8,8	5,9	22,9	0,2	-2,1	-1,0	7,7	9,0
EAEtik	9,9	11,0	18,3	5,2	1,5	1,7	10,0	1,5
Italia	5,2	5,4	26,9	1,6	-1,1	0,6	9,7	8,3
EAEtik	7,7	13,9	8,6	0,2	-0,6	3,6	0,0	21,6
Erresuma Batua	0,9	5,0	13,2	4,3	1,7	1,2	6,3	10,6
EAEtik	0,8	-3,1	4,6	10,2	6,3	-0,1	24,2	-1,2
AEB	4,9	12,4	18,9	-6,3	1,8	8,2	16,9	13,7
EAEtik	-0,9	-11,9	57,1	-5,7	-8,7	16,0	-4,5	17,8

(*) Unean uneko prezioetan. (**) Behin-behineko datuak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuetan oinarrituta.

Esportazioak ekoizkin motaren arabera aztertzen badira, pisu handiena duten atalek berriro izan zituzten gehikuntza tasa handienak, salbuespena garraioaren arloa izan zelarik, beherakada nabarmena jaso zuelako. Horiek horrela izanda, bilakaera positiboena kautxua eta plastikoa atalari egokitu zitzaion, 1999-2003 aldian nozitu zuen narriadura atzean utzita. Ondoren, arlo kimikoa dago, bereziki argazkigintzarako ekoizkinen gorakadari esker. Metal arruntak eta beren manufakturak, 2004. urteko gehikuntza tasara iritsi ez baziren ere, bilakaera hedakorrari eutsi zioten. Azpimarratzekoa da ekipamendurako ondasunek izan zuten atzerakada, are gehiago kontuan hartzen bada inguruneke ekonomia nagusietan inbertsioaren bilakaerak hazkunde egonkorra erakutsi zuela. Hain zuzen ere, makinak eta tresnak delako atalak %5,9ko gehikuntza tasa lortu zuen 2005. urtean, hau da, aurreko urteko tasa baino lau puntu eta erdi gehiago eta atal honek lortzen ohi dituen hazkunde tasen inguruan. Baina beste osagai nagusiak, garraio materialak, berriro egin zuen behera eta bosgarren urtez jarraian hazkunde hutsala jaso zuen. Alde negatiboan, nekazaritzako ekoizkinak kokatu ziren, azken bi urteetako bilakaera positiboa bertan behera utzi zuelako eta azken hamabi urteetako emaitzarik txarrean jaso zuelako, ekonomiaren arlo honek bizi duen egoera kezkarria agerian utziz.

2005eko urteko txostena

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN. ARANTZEL SAILKAPENA

21. TAULA

Milioika euro eta urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak			Inportazioak		
	2004(*)	2005(*)	% Ald.	2004(*)	2005(*)	% Ald.
Guztira	13.521,7	14.225,3	5,2	12.474,7	14.492,3	16,2
Energiaz bestelakoak	12.740,0	13.375,4	5,0	9.538,9	10.036,1	5,2
Nekazaritzakoak	482,6	477,8	-1,0	795,7	811,4	2,0
Kimikoak	353,2	407,2	15,3	438,6	450,1	2,6
Kautxua eta plastikoa	811,6	946,0	16,6	595,0	643,6	8,2
Papera	410,7	424,3	3,3	321,1	329,6	2,6
Metalak eta manufakturak	3.256,4	3.698,4	13,6	3.177,8	3.369,5	6,0
Ekipamendu ondasunak	6.608,0	6.583,0	-0,4	3.280,7	3.413,5	4,0
- Makinak eta tresnak	2.977,1	3.151,3	5,9	2.109,6	2.163,2	2,5
- Garraio materiala	3.630,9	3.431,7	-5,5	1.171,1	1.250,3	6,8
Bestelako manufakturak	719,7	715,1	-0,6	886,2	977,7	10,3
Sailkatu gabeak	97,9	123,5	26,1	43,8	40,6	-7,3

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.

Inportazioei dagokienez, emaitza onak atal guztietan lortu ziren, salbuespen bakarra sailkatu gabeena izan zela, nahiz eta atal horrek oso pisu txikia duen inportazioen guztizkoan. Hain zuzen ere, hazkunde handiena lortu zuen arloa energiako ekoizkinena izan zen, %51,8 hazi baitzen. Beraz, 2002. urtean hasitako goranzko joerari jarraipena eman zitzaion, nazioarteko merkatuetan ekoizkin horiek izan duten garestitzeak bultzatuta. Kautxuaren eta plastikoaren inportazioak %8 baino gehiago hazi ziren, beraz ez ziren iritsi 2004. urteko gehikuntza tasara, baina laugarren urtez jarraian emaitza garrantzitsuak jaso zituzten. Atal horien atzean, metalak eta beren manufakturak, eta ekipamendurako ondasunak kokatu ziren, hauek ere 2004. urteko tasetara iritsi gabe, baina hazkunde tasa nabarmenak berriro lortuz. Azkenik, nekazaritzako ekoizkinek aurreko urtekoa baino hazkunde handiagoa jaso zuten eta %2,0ra igo.

INDUSTRIA EKOIZKINEN SALEROSKETAREN BILAKAERA TEKNOLOGIAREN ARABERA

22. TAULA

	2003			2004			2005 (a)		
	Balioa (*)	Ald. tasa.	%	Balioa (*)	Ald. tasa.	%	Balioa (*)	Ald. tasa.	%
Inportazioak									
Guztira	8.210,8	2,1	100,0	9.700,7	18,1	100,0	10.571,7	9,0	100,0
Teknologia eduki handia	296,4	-7,6	3,6	348,1	17,0	3,6	377,3	8,4	3,6
Teknologia eduki ertain-handia	3.199,0	-1,5	39,0	3.736,4	16,8	38,5	3.860,2	3,3	36,5
Teknologia eduki ertain-txikia	3.405,5	4,9	41,5	4.366,5	28,2	45,0	4.991,8	14,3	47,2
Teknologia eduki txikia	1.309,0	6,9	15,9	1.249,7	-4,5	12,9	1.342,4	7,4	12,7
Esportazioak									
Guztira	11.576,7	1,4	100,0	13.301,0	14,9	100,0	13.984,3	14,9	100,0
Teknologia eduki handia	554,3	41,2	4,8	383,9	-30,8	2,9	321,9	-16,1	2,3
Teknologia eduki ertain-handia	5.521,4	1,6	47,7	6.450,8	16,8	48,5	6.853,5	6,2	49,0
Teknologia eduki ertain-txikia	4.423,7	-1,7	38,2	5.372,7	21,5	40,4	5.708,3	6,2	40,8
Teknologia eduki txikia	1.077,3	-1,1	9,3	1.093,3	1,5	8,2	1.110,6	0,6	7,9

(*) Milioika euro.

(a) Aurrerapena.

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziako datuetan oinarrituta.

Ekoizkinen teknologia edukiaren arabera, EAEko ekoizpen egitura teknologia ertaineko (handia eta txikia) ondasunetan dago espezializatuta eta gutxi dira goi mailako teknologiatzat jotzen diren enpresak. Zehaztu behar da sailkapen horretan goi mailako teknologiatzat jotzen direla aireontziak, botikak, ekipamendu informatikoa eta ekipamendu kirurgikoa egiten dituzten enpresak bakarrik. Teknologia ertain-handiko industriaren artean, ekipamendurako ondasunak (makineria, motordun ibilgailuak eta trenbide materiala) sartzen dira bereziki eta ertain-txikiko teknologiatzat metalurgia eta beste industriak jotzen dira. Egurraren, paperaren eta elikagaien lanketa zein ehungintza teknologia maila txikiko industriak direla erabaki zen.

Bada, sailkapen horren arabera, teknologia maila ertain-handiko eta ertain-txikiko esportazioak berriro areagotu ziren 2005. urtean, hala eurotan nola ekoizpen egituraren partaidetzan. Hala ere, moteltzeko joera erakutsi zuten 2004ko datuen aldean eta oraindik oso urrun daude laurogeita hamarretan lortutako balioetatik. Eduki teknologiko handiko ekoizkinek, berriz, gutxitzeko joerari

2005eko urteko txostena

jarraitu zioten, baina aurreko urtean baino leunago agertu zen joera hori, esportazioen guztizkoan berriro pisua galduz. Talde horretako inportazioek, ordea, bilakaera egonkorragoa erakutsi zuten, ia aldaketarik gabe.

Energiaz bestelako esportazioen helburuari dagokionez, 2005. urteko joera aurreko urtekoaren antzekoa izan zen, baina intentsitate gutxiagokoa, eta hazkunde azpimarragarriak lortu ziren ekonomia eremu nagusi guztietan. Horiek horrela, ELGEko herrialdeetara bidalitako esportazioak, guztizkoaren %83 izan baitziren, %5,2 areagotu ziren. Hazkunde tasa hori 2004ean jasotakoa baino zazpi puntu txikiagoa da. Hala ere, gehikuntza tasa nabarmena da azken urteetako emaitzekin alderatzen bada. Europar Batasunean saldutakoaren moteltzea izan zen gehikuntza txikiago horren erantzule nagusia, batez beste %5,0 baino hazi ez zirelako. Erakunde horren barruan, frantziar merkatura zuzendutako esportazioek moteltze garrantzitsu bat nozitu zuten, baina are handiagoa izan zen Alemaniako merkatuaren narriadura, erritmoa galdu ez ezik, hazkunde negatiboak jasotzera iritsi baitzen. Erresuma Batua ez zen joera horretatik aldendu eta %3ko tasa txikia jaso zuen urteko batez bestean. Europako herrialde nagusietan izan ziren emaitza ez oso handi horiek nabarmenagoak egiten dituzte elkarteko herrialde berrietan lortu ziren salmenta bikainak, bigarren urtez jarraian hazkunde tasak areagotu baitzituzten. ELGEko gainontzeko eremuan, AEBetako merkatuaren suspertzea azpimarratu behar da, nahiz eta herrialde horretan gertatzen ohi diren gorabeherak ezinezkoa egiten dute merkatu kuoten berreskurapena aurreikustea 2006. urteko emaitzak aztertu arte.

ELGETik kanpoko eremuetan, hazkundera izan zen ezaugarri nagusia gune guztietan, baina azpimarratu behar da Amerika Latinoaren igoera, batez bestearen gaineko gehikuntza tasa lortu baitzuen, Mexikoko eta Brasileko bultzadari esker. Gainontzeko eremuetan hazkundera areagotzeko joera bera hauteman zen eta merkatu kuotak finkatuz joan ziren. Joera nagusi horretatik kanpo munduko besteak deitutako atala gelditu zen, esportazioak murriztu zirelako. Izan ere, 2004ko lehen hilabeteetan egin zen eta 2005ean zehar errepikatu ez zen salmenta handi batek baldintzatzen ditu eremu horretako datua.

Energiakoak ez diren inportazioek, berriz, esportazioena bezalako joera erakutsi zuten. Izan ere, inportazio guztiek, hala ELGE eremutik etorri zirenek nola beste herrialdeetatik iritsi zirenek, gehikuntzak jaso zituzten, nahiz eta kopuru handienak ELGE erakundekoak ez diren herrialdeetatik etorri zirenek lortu zituzten. Europar Batasunak hazkunde tasa txikiak izan zituzten, Alemaniako eta, bereziki, Frantziako beherakada garrantzitsuen ondorioz. Azken herrialde honek 2003an baino are jaitsiera handiago jaso zuen. Aitzitik, kide berriak diren herrialdeen inportazioak indar handiz hazi ziren. Erresuma Batuk 2004ko aldakuntza tasa negatiboa gainditzea lortu zuen, baina

2005eko urteko txostena

gehikuntza apaletan jarraitu zuen. Zalantzarik gabe, Europar Batasunaren barruan, kide berrien bilakaera azpimarratu behar da, indartsu hazi zirelako eta aurreko joerarekin bat egiten duen portaera erakutsi zutelako. Europar Batasunetik kanpo, AEBk geldotasuneko aldiari jarraipena eman zion, dagoeneko laugarren urtez.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO SALEROSKETA EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA ETA HELBURUA

23. TAULA

Milioika euro eta urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa	
	2004(*)	2005(*)	% Var.	2004(*)	2005(*)	% Var.	2004(*)	2005(*)
Guztira	12.740,0	13.375,4	5,0	9.538,9	10.036,1	5,2	3.201,1	3.339,3
ELGE	10.600,2	11.147,5	5,2	7.529,0	7.779,2	3,3	3.071,3	3.368,3
Eurogunea	7.429,7	7.761,4	4,5	5.487,0	5.644,8	2,9	1.942,7	2.116,6
Europako kide berriak	409,3	490,5	19,8	177,0	215,2	21,6	232,3	275,2
Europar Batasuna 25	9.178,0	9.634,4	5,0	6.807,9	7.027,0	3,2	2.370,1	2.607,4
- Frantzia	2.619,9	2.699,2	3,0	1.560,0	1.494,6	-4,2	1.059,9	1.204,6
- Alemania	2.078,1	2.051,0	-1,3	1.687,1	1.724,3	2,2	391,0	326,6
- Erresuma Batua	1.071,8	1.103,7	3,0	925,0	938,4	1,4	146,7	165,3
- Italia	909,3	1.099,6	20,9	946,5	1.003,7	6,0	-37,2	95,9
ELGEko besteak (1)	1.831,6	2.003,6	9,4	898,1	967,5	7,7	933,5	1.036,1
- AEB	532,6	549,7	3,2	262,0	251,8	-3,9	270,6	297,9
ELGETik kanpokoak	2.139,8	2.227,9	4,1	2.009,9	2.256,9	12,3	129,9	-29,0
- SESB zena eta Eki.Europa	568,8	660,0	16,0	702,0	723,3	3,0	-133,2	-63,3
- Amerika Latinoa (2)	503,5	649,6	29,0	388,0	514,8	32,7	115,5	134,8
- BIAH (3)	67,6	81,1	20,0	95,2	97,7	2,6	-27,7	-16,6
- Munduko besteak	999,9	837,2	-16,3	824,6	921,1	11,7	175,2	-83,9

(*) Behin-behineko datuak (1) ELGEkoak EB-25 izan ezik (2) Mexiko izan ezik (3) Hego Korea izan ezik.
Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Berezietarako Sailaren datuetan oinarrituta.

ELGETik kanpo, herrialde guztiek hazkunde tasa positiboak jaso zituzten urteko datuetan. Hala ere, esportazioetan bezala, Amerika Latinotik iritsitako inportazioen hazkundera nabarmendu behar da, laurogeita hamarretako amaieran izan ohi zituen gehikuntza tasa altuak berreskuratu zituelako.

2.3 Lan merkatua

Euskal Autonomia Erkidegoko lan merkatuaren bilakaerak aurreko ekitaldian marraztutako ibilbideari jarraitu zion 2005. urtean ere eta %2tik gorako hazkunde tasa bat jaso zuen berriro. Horri esker, urte horretan EAEko ekoizpen egiturak 953.000 lanpostu baino gehiago erabiltzen zituela estimatu da. Halaber, enpleguaren gehikuntza hori bateragarria izan zen ekoizkortasun irabazien berreskuratzearekin. Lehen aldiz urte askoan, EAEko ekoizkortasun irabaziek Europar Batasuneko batez besteko tasa gainditu zuten eta hedapeneko beste garai batzuetan ezagutu ziren balioetara hurbildu ziren.

BPG, LANDUNAK ETA LAN FAKTOREAREN EKOIZKORTASUNA

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
BPG erreala	5,2	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9
Landunak (*)	3,9	2,9	1,9	2,2	2,5	2,1
Itxurazko ekoizkortasuna EAEn	1,3	0,3	0,4	0,9	1,1	1,8
Itxurazko ekoizkortasuna EB 25ean	2,3	0,7	0,7	0,9	1,8	0,8

(*) Kontu ekonomikoen arabera (Eustat).

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Enpleguaren datuei dagokienez, estatistika iturri guztiek hazkunde nabarmena estimatu dute 2005. urterako (25. taula), baina, beste behin, batzuetan eta besteetan erakusten den bizitasuna oso ezberdinak dira. Hain zuzen ere, BJA inkestaren %1,3aren aldean, INEren inkestak %3,9ko hazkundera argitaratu du enpleguarentzat. Tarteko puntu batean kokatu zuen Gizarte Segurantzak afiliazioaren hazkundera eta Eustaten kontu ekonomikoek lanpostuen gehikuntza, hurrenez hurren %2,5 eta %2,1 emendatu baitziren. Enpleguaren joera zehazteko orduan ere emaitza kontrajarriak aurkitzen dira eta BJAk aldagaiaren hazkundeak gero eta txikiagoak izan zirela estimatu bazuen ere, gainontzeko estatistika iturriak bat datoz aurreko urteetako tasak gainditu zituela adierazteko unean. Hala eta guztiz ere, Gizarte Segurantzako afiliatuen datuak handituta egon daitezke 2005. urtean zehar atzerritar langileen egoera legezatzeko prozesuarengatik, zeren eta prozesu horrek lanpostu asko azalarazi baitzuten. Atzerritar langileen kolektiboak gero eta pisu gehiago dauka langileen artean eta dagoeneko atzerritar afiliatuak afiliatu guztietatik %4 baino gehiago dira.

Lan merkatuaren erreforma

Nahiz eta enpleguaren bilakaera, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai Espainian, nahiko ona den eta langabezia tasak behera nabarmen egin duen, lan merkatuan oraindik badaude administrazio publikoak jorratu behar dituen zenbait arazo. Enplegu kantitatearen kontua konpontzeko bidean badago ere, enplegu horren kalitateaz eman diren aurrerapausoak txikiagoak izan dira. Kalitate hori neurtzeko modu erraz bat, baina kritikak ere jaso dituena, aldibaterakotasun tasa erabiltzea da. Adierazle hau Europako herrialdeetako datuetatik oso gora dago kokatuta (29. taula).

Aldibaterakotasun tasa gehiegizko horren jatorria Langileen Estatutuaren 1984ko erreforman dago. Erreforma honek enplegua sustatzeko aldi baterako kontratua sortu zuen eta ordura arte kontratazioan zegoen kausalitate irizpidea bertan behera gelditu zen. Lan kontratu mota horri esker, milaka gaztek tokia aurkitu zuten lan merkatuan, baina hamar urte beranduago soldatapeko guztien herenak aldi baterako kontratua zeukan. Harez geroztik, administrazioaren kezketako bat aldibaterakotasun tasak murriztea izan da. Horretarako, lan merkatuaren erreforma batzuk onartu dira. Haietatik, azpimarratu behar dira 1994, 1997 eta 2001 urteetakoak. Hiruretan neurriak hartu ziren aldi baterako kontratuen erabilera murrizteko edo mugagabeko kontratazioa sustatzeko, baina datuek garbi adierazten dute neurri horiek eragin mugatua izan zutela.

Gauzak horrela, 2006ko maiatzaren 9an, Espainiako Gobernuak, sindikatuek eta enpresarien elkarteek Hazkundera eta Enplegua Hobetzeko Akordioa sinatu zuten, lan erreforma berri baten oinarria zena. Akordioa 2006ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean eta oraingoan ere helburuak aldi baterako kontratuak gutxitzea eta mugagabeko kontratazioa bultzatzea dira. Lehenengo helburua lortzeko mugagabe bihurtuko dira 30 hilabeteko epean, aldi baterako bi kontraturen edo gehiagoren bidez, 24 hilabete baino gehiago lanean egon diren langileen kontratuak. Bigarren helburua betetzeko, lau neurri hartu dira: aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko aukera; kontratu mugagabeetan enpresariak ordaintzen duten langabezia kotizazioak jaistea; kontratazio mugagabea sustatzeko pizgarri ekonomikoen sistema aldatzea, onuradunak izango diren kolektiboak hobeto aukeratzeko eta diru laguntzak errazteko; eta aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea sustatzen den aparteko egitasmotzat ezartzea.

2005eko urteko txostena

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N ITURRI EZBERDINEN ARABERA

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Landunak BJA inkestan (Eustat)	4,4	1,4	3,5	5,0	1,4	1,6	1,3
Landunak BAI inkestan (INE)	5,6	4,0	3,6	1,7	2,3	1,0	3,9
Landunak kontu ekonomikoetan (Eustat)	4,5	3,9	2,9	1,9	2,2	2,2	2,4
Gizarte Segurantzako afiliatuak	4,3	4,7	3,5	2,3	1,7	1,8	2,5
Langabeak BJA inkestan (Eustat) (1)	-11,2	-12,5	-18,2	-24,3	5,5	-8,7	-27,5
Langabeak BAI inkestan (INE) (2)	-16,5	-11,3	-18,1	-0,6	0,8	4,0	-24,3
INEMek jasotako langabeak (*)	-	-	-	10,6	0,9	0,1	-5,5
Langabezi tasa BJA inkestan (Eustat) (1)	15,5	13,7	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7
Langabezi tasa BAI inkestan (INE) (2)	13,9	12,1	9,8	9,6	9,5	9,7	7,3

(1) Biztanleria berrikusi ondoren jasotako emaitzak (2001eko oinarria).


(2) 2001. urtetik aurrera, langabeziaren datuetan 2005eko metodologia erabiltzen da.

(*)SISPE kudeaketaren bitartez argitaratutako enplegu estatistika berria. 2001ko ekainetik aurrerako datuak daude eskuragarri..

Iturria: Eustat, INE, INEM eta Gizarte Segurantza.

Atzeritar afiliatuen bilakaera EAEn

14. irudia



Iturria: Gizarte Segurantza

Lanik gabeko biztanleriari dagokionez, kolektibo horretan eta langabezia tasan gertatu zen beherakada garrantzitsua lan merkatuaren ezaugarri azpimarragarrienetariko bat izan zen 2005. urtean. Langabezia tasa, BJA inkestaren arabera, 2004ko %7,8tik 2005eko %5,7ra murriztu zen. Sexuaren arabera aztertuta, gizonen eta emakumeen jaitsierak antzekoak izan ziren eta bi sexuen langabezia tasen arteko aldea ez zen hiru puntuetara iritsi. Are gehiago, 2005. urteko hirugarren hiruhilabetetik, lanik gabe dauden emakumeen kopurua gizonen kopuruaren azpian kokatu zen. Gainontzeko estatistika iturri (BAI eta INEMen langabezia) bat datoz langabeziak nabarmen egin duela behera irudikatzen duen analisi horrekin. Bilakaera positibo horri esker, EAEko langabezia tasa Europako herrialdeen batez besteko balioaren hiru puntu azpitik jarrita zegoen, 2005ean azken hauek hamarren gutxi batzuk bakarrik gutxitu baitzuten beren tasa.

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N ETA EUROPAN

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Langabezia tasa EAEen (1)	13,7	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7
Langabezia tasa Eurogunean	8,1	7,9	8,3	8,7	8,9	8,6
Langabezia tasa Europar Batasuneko 25etan	8,6	8,4	8,8	9,0	9,1	8,7

(1) Biztanleria berrikusi ondoren jasotako emaitzak (2001eko oinarria).
Iturria: Eustat eta Eurostat.

Ekonomiaren arloen enplegua kontu ekonomikoen datuetan aztertzen bada, landunen gehikuntza eraikuntzan eta zerbitzuetan gauzatu zela adierazi behar da. Aitzitik, bai lehen arloak bai industriak beren lanpostuen kopurua murriztu zuten. Horiek horrela, lehen arloak, 2004. urtean bere enplegua zertxobait areagotu bazuen ere, berriro murriztu zituen bere lanpostuak, arrantzaren alorrean sortu ziren arazoez sektorearen jarduera baldintzatu zuten urte batean. Industriak ere bere landunen kopurua gutxitu zuen, baina, lehen arloak ez bezala, arlo honek etengabe sortu zituen lanpostuak aurreko bederatzi urteetan. Eraikuntza, berriz, hazkunde handiena lortu zuen sektorea izan zen berriro, baina aurreko urteetan ere erakutsi zuen moteltzeko joerari jarraipena eman zion 2005. urtean. Azkenik, eta EAEko ekonomia lortzen ari den heldutasuna ikusirik, zerbitzuen garrantzia gero eta handiagoa da, enpresentzako zerbitzuek, merkataritzak, osasunak eta pertsonentzako zerbitzuek enpleguari ekarpen nabarmenak egiten dizkiotelarik.

2005eko urteko txostena

Aipatu den enplegu sorrerak ekoizkortasun maila garrantzitsua lortzea ahalbidetu zuen, aurreko urteetan eskuratutakoa baino askoz handiagoa delarik eta baita espainiar ekonomiak jasotako balioen gainetik ere. Behin berriro, adierazi behar da sektore bakoitzak ekoizkortasunaren gehikuntzari egiten dion ekarpen ezberdina. Hain zuzen ere, industriak lortutako %5,3ko hazkundearen aldean, zerbitzuek %0,1 baino ez zuten hobetu ekoizkortasuna. Hala ere, azpimarratu behar da eraikuntzak %1,3ko gehikuntza lortu zuela, zenbait urtez ekoizkortasun galerak jaso eta gero.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Enplegua guztira:	3,9	2,9	1,9	2,2	2,5	2,1
Ekoizkortasuna guztira:	1,3	0,3	0,4	0,9	1,1	1,8
- Enplegua lehen arloan	-0,8	-3,3	-0,3	-2,9	1,5	-3,5
- Ekoizkortasuna lehen arloan	-19,7	14,0	-0,3	-3,0	28,0	-8,3
- Enplegua industrian	4,9	3,0	1,2	1,2	0,9	-0,9
- Ekoizkortasuna industrian	3,5	-0,9	-0,3	0,0	2,0	5,3
- Enplegua eraikuntzan	9,4	9,6	7,0	6,5	5,1	4,0
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	-1,5	-0,4	-1,7	-1,4	-0,7	1,3
- Enplegua zerbitzuetan	3,0	2,3	1,6	2,2	2,8	3,5
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	0,4	0,8	1,1	1,0	0,4	0,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Enpleguaren bilakaera sexuaren arabera aztertzen bada, BJA inkestaren datuan erabilita, emakume landunen kopuruak azken urteetako bultzada garrantzitsuari eutsi zion. Horri esker, talde horretako enplegu tasak beste urrats bat eman zuen Lisboako Estrategian Europako herrialdeentzat ezarri ziren helburuetara hurbiltzeko. Orobat, adierazi behar da azken bost urteetan enplegua 100.000 lagunetan hazi bada, lanpostu horietatik guztietatik ia hiru laurdenak emakumeek bete zituztela. Hala eta guztiz ere, emakumeen eta gizonen arteko aldea, enplegu tasei dagokienez, oso handia da oraindik.

Adin taldeei dagokienez, emaitza txarrenak gazteek jaso zituzten. Hain zuzen ere, %-5,3 murriztu zen langile gazteen kopurua. Hala ere, gogoratu behar da kolektibo honen biztanleria etengabe ari dela gutxitzen eta horrek aurreko aldagaiaren bilakaera baldintzatzen duela. Hori dela eta, adin horretako landunen kopurua, gutxitu baita, aztertu beharrean talde horretako enplegu tasa analizatzen bada, emaitza guztiz kontrakoa da. Izan ere, talde horren enplegu tasak (%32,6) bi hamarrenetan hobetu zuen aurreko urteko datua. Era berean, gainontzeko adin taldeetan ere hobekuntza txikiak jaso ziren enplegu tasan, 45 urte eta gehiago dutenen taldean tamaina handiagokoa izan zelarik.

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

28. TAULA

	Miaka lagun		Urte arteko aldakuntza tasak				
	2004	2005	2001	2002	2003	2004	2005
Parte hartzaileak	1.007,7	998,2	0,5	1,7	1,8	0,7	-0,9
-Gizonak	581,9	577,8	0,0	1,2	0,3	-0,5	-0,7
-Emakumeak	425,8	420,4	1,2	2,5	3,8	2,5	-1,3
Landunak	929,1	941,2	3,5	5,0	1,4	1,6	1,3
-Gizonak	544,0	550,3	2,2	3,2	-0,6	-0,5	1,2
-Emakumeak	385,1	390,9	5,6	7,8	4,6	4,7	1,5
-Lehen arloa	16,1	11,2	-22,0	7,9	18,5	-15,2	-30,4
-Industria	250,2	246,6	6,5	-1,7	-1,5	-0,9	-1,4
-Eraikuntza	85,9	82,7	7,0	9,7	5,0	-1,7	-3,7
-Zerbitzuak	577,0	600,8	2,5	7,6	1,7	3,8	4,1
Langabeak	78,6	57,0	-18,2	-24,3	5,5	-8,7	-27,5
-Gizonak	37,9	27,5	-21,0	-23,6	15,3	-0,5	-27,6
-Emakumeak	40,7	29,5	-16,2	-24,7	-1,2	-15,1	-27,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Lisboako Estrategiaren ikuspegitik, badirudi Europar ezarritako helburuak hurbilago daudela. Izan ere, enplegu tasa orokorra dagoeneko 2010. urterako jarri zen %70eko helburutik bost puntu baino gutxiagora iritsi da. Orobat, emakumeen enplegu tasa %54,8an kokatu da, hau ere %60ko helburutik gero eta hurbilago dagoelarik. Hala eta guztiz ere, arazo handienak langile helduenen taldean (55 eta 65 urte bitartekoak) daude. Talde horretan ere enplegua sortu zen, baina adin tarte

2005eko urteko txostena

horretako biztanleria neurri bertsuan hazi zen, enplegu tasa bere horretan utziz eta %50eko helburua lortzea zailagoa eginez.

Enpleguaren sorrera soldatapekoen taldean gauzatu zen. BJA inkestaren arabera, talde horrek bere kopurua handitzen jarraitu zuen eta ia 770.000 soldatapeko biltzera iritsi zen. Bultzada garrantzitsuena arlo publikoko soldatapekoek eman zuten (%2,5), eremu publikoko langileen kopurua ia bere horretan gelditu zen bitartean (%0,2), kopuru hori ez igotzeko hartu diren politiken ondorioz. Aitzitik, soldatapekoak ez diren langileen kopuruak zertxobait behera egin zuen (%-2,2) 2004ko kantitatearen aldean, nahiz eta langile autonomoen taldeak nolabaiteko gehikuntza izan zuen (%2,1). Enpleguaren sorrera bereziki kontratu mugagabeetan eta ez aldi baterako kontratuetan metatu bada ere (%5,3 eta %-3,0, hurrenez hurren), aldibaterakotasun tasa oso maila altuetan mantendu zen, baina aurreko urteko datuen azpitik (%25,6, aurreko urteko %27aren aldean). Jaitsiera hori bi sexuetan gauzatu zen. Gizonen artean, aldi baterako enplegua %-5,7 murriztu zen eta emakumeen artean, berriz, %0,1 baino ez ziren areagotu, kolektibo horretako kontratu mugagabeak %8,8 gehitu ziren bitartean.

ALDIBATERAKOTASUN TASA SOLDATAPEKO GUZTIEKIKO

29. TAULA

%

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Alemania	14,3	14,4	14,0
EAE	25,6	23,2	28,8
Espainia	33,4	31,7	35,7
Frantzia	13,3	12,6	14,0
Italia	12,3	10,5	14,7
Erresuma Batua	5,7	5,2	6,2
EB-25	14,2	13,8	14,8
Eurogunea	15,9	15,2	16,8

Iturria: Eustat eta Eurostat.


Lan egindako orduen kopuruari dagokionez, BJA inkestaren datuek adierazten dute batez besteko lan jardunaldia 2005ean aurreko urtekoaren antzekoa izan zela eta 36 ordu eta 41 minutukoa izan zela, 2004ko jardunaldia lau minututan bakarrik jaitsiz. Izan ere, lan egindako orduen hazkundera eta

ordu horiek egin dituztenena, urteko batez bestean, oso antzekoak izan ziren, %3,4 eta %3,5 hurrenez hurren. Lanaldiaren jaitsieran zerbitzuetan bakarrik nabaritu zen eta eragin bertsua izan zuen bi sexuen artean. Oro har, emakumeek gizonek baino lau ordu gutxiago lan egiten dute, zerbitzuen arloan kontzentratuago daudelako. Gogoratu behar da ekonomiaren arlo horretan erabiltzen dela gehien lanaldi laburreko kontratua.

Lanaldiaren bilakaera

15. irudia

Astean lan egindako orduak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustaten datuetan oinarrituta.

BJAren arabera, lan merkatuan parte hartzen duen biztanleriak behera egin zuen, lehenengo aldiz 2000. urtetik. Izan ere, 2005ean, lan merkatuko partea ziren lagunen kopurua aurreko urtekoa baino %-0,9 txikiagoa izan zen. Beherakada hori gizonen artean (%-0,7) zein emakumeen artean (%-1,2) gauzatu zen. Horren ondorioz, partaidetza tasak sei hamarren galdu zituen eta %54,8an kokatu. Horrek guztiak pentsarazten du lan merkatuan azken urteetan sartu diren immigranteen kopurua oso garrantzitsua izan den arren, badago kolektibo gero eta handiago bat merkatu horretan parte hartzeko pizgarriak aurkitzen ez duena.

2005eko urteko txostena

2005. urtean, kontratazioak moteltzeko zantzuak eskaini zituen, INEMen estatistikaren arabera, kontratu berrien kopurua aurreko urteko %6,4tik 2005eko %1,9ra murriztu zelako. Zorionez kontratu mugagabeek ez zuten apaltze hori tamaina handian nozitu eta ia inolako aldaketarik gabe eutsi zioten 2004. urteko kontratu kopuruari (29.878 kontratu mugagabe 2005an eta 29.889 aurreko urtean). Kontratu mota ezberdinen artean, azpimarratu behar dira lanaldi laburreko kontratuak, aurreko ekitaldietako tasa garaiei eutsi zietelako (%8,4), aldi baterako kontratuen gehikuntzari esker eta lanaldi osoko kontratu mugagabeen igoerari esker, zenbait urtetan bere kopurua murriztu eta gero aldakuntza tasa positiboak (%3,6) berriro jaso zituztelako.

INEM-EK JASOTAKO KONTRATUEN BILAKAERA

30. TAULA

	Kontratu kopurua		Urteko aldakuntza tasak (%)				
	2004	2005	2001	2002	2003	2004	2005
GUZTIRA	764.498	779.319	-0,6	-0,2	5,2	6,4	1,9
Lanaldi osoko mugagabeak	20.001	20.715	-23,6	-17,6	-5,4	-1,0	3,6
Obra edo zerbitzukoak	200.311	193.109	1,3	-3,3	1,6	4,2	-3,6
Abagunekoak	221.652	223.028	-8,8	-3,8	5,3	5,9	0,6
Lanaldi laburrekoak	217.999	236.226	13,1	10,6	6,9	9,5	8,4
Prestakuntzakoak (*)	9.612	9.237	-8,4	-7,6	-13,2	6,4	-3,9
Besteak	94.923	97.004	4,3	1,0	14,8	7,1	2,2

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina INEMen datuetan oinarrituta.

Azkenik, mugagabeko kontratazioak, kopuruan izan zuen jaitsiera arinaren ondorioz, pisua galdu zuen kontratu guztien egituran eta %3,91 izatetik %3,83 izatera igaro zen. Gogoan eduki behar da enpleguaren sorreran eraikuntzak duen paper garrantzitsua eta, hain zuzen ere, ekonomiaren arlo hori dela aldi baterako kontratu gehien erabiltzen dituen, zeren eta obra amaitu arteko kontratuak egiten ohi dituelako.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

31. TAULA

	2003		2004		2005	
Ohiko mugagabeak	10.703	%1,49	10.559	%1,39	11.446	%1,47
Mugagabe berriak	9.245	%1,29	9.162	%1,20	9.015	%1,16
Lanaldi osoko gainot. mugagab.	253	%0,04	240	%0,03	254	%0,03
Lan. osoko mugagab. guztira.	20.201	%2,81	20.001	%2,62	20.715	%2,66
Lanaldi laburreko mugagabeak	10.217	%1,42	9.888	%1,29	9.163	%1,18
Mugagabeak guztira	30.418	%4,23	29.889	%3,91	29.878	%3,83
Kontratu berriak guztira	718.519	---	764.498	---	779.319	---

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina INEMen datuetan oinarrituta.

2.4 Prezioak, kostuak eta soldatak

Prezioen adierazleen bilakaera 2005. urtean, petrolio gordinaren garestitzeak (%42 eurotan neurtuta) baldintzatu zuen. Garestitze horrek bereziki industriako prezioetan izan zuen eragina, zeren eta kontsumoko salneurriak gutxiago gehitu baitziren eta barne produktu gordinaren deflatorearen hazkundeak nabarmen egin zuen behera. Are gehiago, 2006ko lehen hilabeteetan prezioek erakutsi duten bilakaera ikusita, garbi dago energiaren eragin negatiboak iraun egingo duela.

BPGren deflatorearen analisiari dagokionez, aldagai horren moteltzea industriaren eskutik iritsi zen, bere ekarpena murriztu zuelako. Ekonomiaren arlo honek prezioen igoera esanguratsua izan zuen 2004. urtean, baina ez zen berriro gertatu 2005ean. Salneurrien bizkortze horren jatorria petrolioak nazioarteko merkatuetan izan zuen portaerarekin lotuta zegoen eta petrolioaren fintzean du eragina, adar horren deflatoarea 2004an %70 baino gehiago hazi zelako, 2005ean %5 baino gehitu ez zen bitartean, nahiz eta adar horren lehengaia eritmo bertsuan garestitzen jarraitu zuen arren. Alor horretaz gain, zerbitzuek eta eraikuntzak ere beren deflatoreen bilakaera zertxobait moteldu zuten 2005. urtean.

2005eko urteko txostena

DEFLATOREEN BILAKAERA

32. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005
BPGren deflatoea	2,2	2,8	3,2	4,4	3,3
Lehen arloko deflatoea	-14,5	5,1	4,4	-19,4	10,2
Industriaren deflatoea	1,7	1,4	1,8	6,0	2,0
Eraikuntzaren deflatoea	6,5	5,3	11,1	5,2	4,9
Zerbitzuen deflatoea	3,2	3,3	3,0	3,5	3,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta

Barne produktu gordinaren deflatoea errenta talde bakoitzak egin dion ekarpenetan banatzen bada, agerian gelditzen da bai soldatapekoen ordainketak bai ustiapen soberakin garbiak deflatoreari egin zioten ekarpena txikiagoa izan zela 2005. urtean aurrekoan baino. Aitzitik, ekoizkineen gaineko zerga garbiak berriro izan ziren barneko prezioen igoera eragin zuten bultzatzaile nagusiak, bereziki kontuan hartzen bada atal honek BPG osoan eta errenten aldetik neurtuta daukan pisu txiki samarra (%11).

BPG-REN DEFLATOREAREN ALDAKETARI EGINIKO EKARPENAK

33. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005
BPGren deflatoea	2,2	2,8	3,2	4,4	3,3
Soldatapekoen ordainketa	2,3	1,8	1,4	2,0	1,4
Ustiapeneko soberakin gordina	0,2	0,5	0,7	1,2	0,9
Kapital finkoaren kontsumoa	0,1	0,3	0,4	0,5	0,2
Ekoizkinei eta inportaz. lotutako zergak	-0,3	0,3	0,8	0,8	0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Prezioak

Dagoeneko aipatua izan denez, 2005. urtean petrolioaren salneurrien bilakaera erabakigarria izan zen inflazioaren emaitzan, batez ere urteko bigarren seihilekoan. Horiek horrela, kontsumoko prezioek berriro egin zuten gora aurreko urteetako emaitzen aldean eta %3,3ra iritsi ziren urteko batez bestean neurtuta, hots, azken hiru urteetako tasarik altuena jaso zuen. Beraz, beste urte batez Euroguneko herrialdeen hazkunde erritmoa gainditu zen eta bi lurraldeen arteko inflazio tartea 1,1 puntuetara zabaldu. Are gehiago, 2006ko lehen hilabeteetako datuak aztertuta, ez dirudi aldaketarik dagoenik aldagai horretan. Aitzitik, urte arteko aldakuntza tasa %3,8aren inguruan egonkortu dela ematen du.

Petrolioaren bilakaera zehazkiago aztertuta, hori izan baita prezioen garestitzearen eragile nagusia, azpimarratu behar da Brent motako upelaren batez besteko salneurria eurotan %42tik gora igo zela 2005. urtean aurreko urteko prezioaren aldean. Garestitze horren arrazoiak asko dira. Alde batetik, lehengai horren eskaria nabarmen areagotu da, Txinak eta AEBek bultzatuta. Beste aldetik, ekoizteko eta fintzeko ahalmena murriztuta dago, batez ere gatazka armatua bizi duten edo natura hondamendia nozitu duten tokietan. Azkenik, etorkizunean munduko eskariari erantzuteko zailtasunak egongo direla uste da. Hala ere, termino errealetan petrolioaren salneurria ez da iritsi aurreko krisietako balioetara. Aurreko guztiaren ondorioz, energiaren prezioen urte arteko aldakuntza tasa %8,4an kokatu zen 2005ean, aurreko urteko %4,2aren aldean, eta urteko inflazioari egin zion ekarpena zazpi hamarrenekoa izan zen.


KONTSUMO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

34. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2002	2003	2004	2005	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,7	2,8	3,0	3,3	3,3
Azpiko inflazioa (%82,9)	4,0	2,7	2,7	2,7	2,2
KPI Landutako elikagaiak (%15,6)	4,3	3,0	3,7	3,5	0,5
KPI Industriako ondasunak (%28,6)	2,4	1,6	0,5	0,7	0,2
KPI Zerbitzuak (%38,7)	5,2	3,4	4,0	3,9	1,5
Hondarreko inflazioa (%17,1)	2,2	3,7	4,6	6,3	1,1
KPI Landugabeko elikagaiak (%8,5)	4,6	5,9	5,1	4,3	0,4
KPI Energia (%8,6)	-0,2	1,4	4,2	8,4	0,7

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).



Iturria: INE.

Talde berezien analisian, energiako ekoizkinen bilakaera nabarmendu behar da, hazkunde tasa handiena jaso zituztelako. Gorakada horren atzean, erregaien garestitzea eta gas naturalak eta butanoak izan zuten prezio igoerak daude. Elikagai freskoen salneurria ere nabarmen igo zen eta %4,3an kokatu. Hala ere, 2003. urtean hasi zuen moteltzeko joerari segida eman zion, nahiz eta 2005. urtean zehar berriro goranzko norabidea hartu zuen, lurralde ekoizle gehienetan nozitu zen lehortearen ondorioz. Landutako elikagaien prezioek ere 2004koak baino hazkunde erritmo apalagoak erakutsi zituzten, bi hamarren gutxiago hazi zirelako. Emaidza hori garrantzitsua da kontuan hartzen bada oliba olioaren salneurria ia %10 hazi zela eta tabakoa, berriz, %6,6. Azkenik, zerbitzuetako inflazioak zertxobait egin zuen behera, nahiz eta nolabaiteko perfil gorabeheratsua erakutsi zuen epe laburrean. Gorabehera horiek antolatutako oporrek eta garraioak -bereziki aireko garraioak- bezalako osagaien portaerak eragin zituen, petrolioaren garestitzeak atal horietan modu biziagoan nabaritu zelako.

Azpiko inflazioari dagokionez, adierazi behar da hirugarren urtez jarraian %2,7an kokatu zela, egonkortasuneko irudia emanez eta Europako Banku Zentralak ezarritako helburua nabarmen

gaindituz. Gertakari honek baditu, gutxienez, bi irakurketa kontrajarri. Alde batetik, pentsatu daiteke petrolioaren eta lehortearen goranzko presioak desagertuko balira, indize orokorrak aipatu den erreferentzia balio hori alde handiz gainditzen duen tasa baterantz joko duela. Beste aldetik, indize orokorraren igoera azpiko inflaziora igaro ez izanak lagundu dezake inflazioa tasa apalagoetara mugiarazten.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

35. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2002	2003	2004	2005
Indize orokorra	3,7	2,8	3,0	3,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,2	4,1	4,3	3,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	5,2	3,0	3,7	4,8
Jantziak eta oinetakoak	5,1	3,0	0,7	0,7
Etxebizitza	3,0	2,9	4,2	5,0
Etxeko hornidura	2,1	1,7	2,2	2,2
Medikuntza	3,4	1,8	0,7	1,0
Garraioa	2,3	2,1	4,1	5,6
Komunikazioak	-2,9	-2,6	-1,1	-1,6
Aisia eta kultura	2,6	0,0	-0,2	-0,3
Irakaskuntza	3,9	4,7	4,4	4,2
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	5,2	3,6	4,0	4,4
Besteak	5,1	3,1	2,6	3,1
Azpiko inflazioa	4,0	2,7	2,7	2,7
Hondarreko inflazioa (elikagai freskoak eta energia)	2,2	3,7	4,6	6,3

Iturria: INE.

Eurogunearekiko inflazio tartearen gehikuntza lotuago dago azpiko inflazioaren bilakaerarekin petrolio gordinaren garestitzearekin baino, zeren eta azken honen eragina txikiagoa izan baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian. Tartearen irekiera batez ere landutako elikagaien eta zerbitzuen prezioetan oinarritu zen, bi atal horien hazkundeak uko egiten baitio %4tik jaisteari, Euroguneko datua puntu bat eta erdian baino gehiagoan gaindituz. Behin berriro, inflazioa murriztearen kontra agertzen diren atalak kanpo lehiatik babestuago daudenak direlako zantzuak daude.

2005eko urteko txostena

Hala eta guztiz ere, industriako ondasunek ere petrolio gordina garestitu zuten nazioarteko gertakarien ondorioak nozitu zituzten. Hain zuzen ere, IPRI izan zen lehengai horren gorabeherak gehien hauteman zuen prezioen indizea, %5,2ko balioa jasota, 2000. urtetik inoiz izan den hazkunde tasa altuena baita. Adierazle horren gehikuntza eragin zuten atal nagusiak, beste behin, energia, petrolio gordinaren bilakaerak baldintzatua, eta bitarteko ondasunak izan ziren. Hala ere, azken ondasun hauen gehikuntza tasa aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen, energiakoak ez diren lehengaien salneurriek aurreko urtean baino hazkunde txikiagoa izan zutelako. Gainontzeko ondasunen prezioak indize orokorra baino gutxiago hazi ziren. Azpimarratu behar da kontsumo iraunkorreko ondasunen garestitzea, 2004. urteko hazkundearen aldean bere tasa puntu bat baino gehiago bizkortu zuelako.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

36. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2001	2002	2003	2004	2005
Indize orokorra	0,7	0,3	1,8	4,3	5,2
Kontsumoko ondasunak	4,1	2,2	1,6	1,9	1,7
- Kontsumo iraunkorra	2,0	1,1	0,3	0,9	2,2
- Kontsumo iragankorra	5,1	2,7	2,7	2,4	1,5
Ekipamendurako ondasunak	1,0	0,7	3,4	1,0	1,8
Bitarteko ondasunak	0,8	0,9	1,8	6,8	5,2
Energia	-5,2	-4,0	0,0	5,5	17,0

Iturria: Eustat.

Kostuak eta soldatak

Banakako lan kostuak langile bakoitzeko lan kostuaren eta ekoizkortasun irabazien arteko erlazioaren bitartez aztertzen bada, agerian gelditzen da kostu horiek ez zirela asko igo eta aurreko urteko balio bera errepikatu zutela (%1,8). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata kostua aurreko urtetan baino gehiago gehitu zen arren, ekitaldian lortu ziren ekoizkortasun irabaziek banakako kostuak maila apal horietan mantentzeko balio izan zuten.

BANAKAKO LAN KOSTUEN BILAKAERA

37. TAULA

	2001	2002	2003	2004	2005
BPG erreala	3,2	2,3	3,1	3,6	3,9
Enplegua	2,9	1,9	2,2	2,5	2,1
<i>Ixurazko ekoizkortasuna</i>	<i>0,3</i>	<i>0,4</i>	<i>0,9</i>	<i>1,1</i>	<i>1,8</i>
<i>Lan kostua langileko</i>	<i>2,8</i>	<i>4,2</i>	<i>2,9</i>	<i>2,9</i>	<i>3,6</i>
Banakako lan kostua	2,5	3,8	2,0	1,8	1,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta INEren datuetan oinarrituta.

2005eko urteko txostena

Lan kostuen gutzitza sektore nagusi guztietan hauteman zen, INEk lan kostuei buruz argitaratu zituen datuen arabera. Izan ere, eraikuntza eta zerbitzuetan igo ziren, baina baita industrian ere, nahiz eta ehungintza eta jantzigintza bezalako adarretan enpresen marginak murriztu ziren, kanpo lehia gogorraren ondorioz.

Negoiazio kolektiboak ere aipatu diren kostuen igoera bereganatu zuen. Hain zuzen ere, 2005. urtean adostu ziren soldaten igoerak aurreko urtekoa puntu erdi batean gainditu zuen. Neurri handi batean, bizkortze horren arrazoia 2004ko abenduan jaso zen inflazio tasa handiagoan datza, hori, eta ez urte bereko inflazioa, izaten baita negoziazioaren erreferentzia nagusia. Negoziarioaren portaerak erakutsi zituen ezaugarriak aurreko urteetako berak izan ziren. Izan ere, urtean bertan sinatutako lan hitzarmenek lehendik sinatutakoena bezalako soldata igoera adostu zuten eta enpresetan adostutako hitzarmenek sektorekako negoziatioan ezarritako igoerak baino txikiagoak onartu zituzten. Hala ere, sektoreko lan hitzarmenak dira langile gehien baldintzak arautzen dituztenak.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

38. TAULA

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Indarrean dauden hitzarmenak	3,9	4,5	3,9	4,4	4,0	4,5
- Urtean zehar sinatutakoak	4,0	4,4	3,8	4,9	3,9	4,3
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	3,8	4,5	3,9	4,5	4,0	4,6
- Enpresako hitzarmenak	3,9	4,1	4,0	3,9	3,8	4,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

2.5 Arlo publikoa

2005. urtean, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien gastu bateratuak %6,5eko gehikuntza izan zuen aurreko urteko diru kopuruen aldean. Beraz, gastuen hazkundera ez zen iritsi EAEko ekonomiak unean uneko prezioetan lortu zuen igoerara (%7,3). Beste aldetik, diru sarreren kapituluaren multzoak %10etik gorako hazkundera izan zuen, 786 milioi euroko saldo positiboa ahalbidetuz.

Gastuko kapituluaren artean, hazkunde tasa handiena eragiketa arruntei egokitu zitzaizkien (%7,2), beraien artean transferentziak tasa handienak (%8,5) jaso zituztelarik. Finantzako gastuen bilakaera, ordea, guztiz kontrajarria izan zen eta %-13,1 gutxitu. Beste aldetik, kapitaleko eragiketak %2,2 areagotu ziren, inbertsio errealek %4,4 hazi zirelarik eta kapitaleko transferentziak ia bere horretan mantendu zirelarik. Azkenik, finantza eragiketek %4,8ko gehikuntza tasa izan zuten, finantza pasiboen hazkunde nabarmenari esker.

EUSKO JAURLARITZAKO ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

39. TAULA

Milaka euro

	2004	2005	Aldakuntza %
GASTUAK GUZTIRA	10.866.170	11.567.106	6,5
1. Langileen gastuak	1.656.423	1.747.002	5,5
2. Funtzionamenduko gastuak	2.345.261	2.508.519	7,0
3. Finantza gastuak	125.125	108.754	-13,1
4. Transferentzia arruntak	4.827.316	5.235.577	8,5
ERAGIKETA ARRUNTAK GUZTIRA	8.954.125	9.599.851	7,2
6. Inbertsio errealek	728.560	760.253	4,4
7. Kapitaleko transferentziak	682.765	682.395	-0,1
KAPITALEKO ERAGIKETAK GUZTIRA	1.411.325	1.442.647	2,2
8. Finantza aktiboen aldakuntza	222.314	226.325	1,8
9. Finantza pasiboen aldakuntza	278.406	298.283	7,1
FINANTZA ERAGIKETAK GUZTIRA	500.720	524.607	4,8

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Diru bilketaren atala itunpeko zergen informazioarekin aztertzen bada, azpimarratu behar da sarreren atalak berriro ere izan duen hobekuntza zuzeneko zergen bizitasunari esker (%16,4) zein zeharkako zergen gehikuntza erritmoari esker (%15,5) lortu zela. Bi multzo horien hazkundearen ondorioz, itunpeko zergen bidezko diru bilketa %13,7 areagotu zen 2005. urtean. Tasa hori lortu zen azken aldian 1998. urtean izan zen.

2005eko urteko txostena

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

40. TAULA

Milaka euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2004	2005	Aurreikus gain. %	05/04 aldak. %
PFEZ	3.052.012	3.403.716	104,3	11,5
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.192.880	3.455.143	102,3	8,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	113.792	133.526	112,7	17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.640	30.211	100,5	5,5
- Ondare irabazien atxikipenak	10.162	15.595	126,9	53,5
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	160.836	164.905	100,4	2,5
- Kuota diferentzial garbia	-454.298	-395.665		12,9
Sozietateen gaineko zerga	1.139.509	1.440.377	122,8	26,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	113.792	133.526	112,7	17,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	28.640	30.211	100,5	5,5
- Ondare irabazien atxikipenak	10.162	15.595	126,9	53,5
- Kuota diferentzial garbia	986.916	1.261.045	124,7	27,8
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	30.938	46.028	354,0	48,8
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	46.458	79.118	147,6	70,3
Ondarearen gaineko zerga	93.417	106.991	110,2	14,5
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	4.362.334	5.076.230	110,4	16,4
BEZaren bertoko kudeaketa	2.404.733	2.973.596	122,4	23,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	279.325	307.462	116,8	10,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	112.111	115.372	77,8	2,9
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	61.757	64.913	95,6	5,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.294.889	1.340.487	100,6	3,5
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	44.935	47.632	102,9	6,0
Aseguru sarien gaineko zerga	64.703	70.938	103,5	9,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	4.262.704	4.923.517	113,0	15,5
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	103.569	105.294	97,9	1,7
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	8.728.606	10.105.041	111,5	15,8
BEZaren doikuntza	1.241.300	1.212.746	89,7	-2,3
Zerga berezian doikuntza	-63.036	-52.331	57,9	17,0
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	9.906.870	11.265.456	109,1	13,7

Iturria: Foru Aldundiak.

Analisia zuzeneko zergekin hasita, PFEZ zergaren diru bilketak oso hazkunde azpimarragarria lortu zuen, %11,5. Tasa garrantzitsu hori nabarmenagoa da 2004ean izandako datuarekin alderatzen bada, %1,1 baino ez baitzen hazi urte hartan. Hazkunde garrantzitsu horrek EAEko ekonomiaren egoera bikaina agerian uzten du, zeinean enplegua etengabe ari baita hazten eta soldata nominalak prezioen gehikuntzaren erritmo bertsuan igotzen baitira.

Zuzeneko zergaren beste oinarriak ere, hau da, sozietateen gaineko zergak, aurreko urtekoa baino hazkunde tasa garrantzitsuagoa jaso zuen (%26,4 eta %9,7, hurrenez hurren), enpresek tamaina handiko mozkinak lortzen jarraitu zutelako.

Zeharkako zergei dagokienez, adierazi behar da bertan kudeatutako BEZ zerga izan zela, sozietateen gaineko zergarekin batera, hazkunde tasarik garaiena lortu zuena, %23,7ko igoerarekin. Bilakaera on horren atzean, familien kontsumoaren sendotasuna eta etxebizitzaren prezioek izan duten hazkundera daude.

Azkenik, zerga berezien artean, azpimarratzekoa da diru gutxien biltzen dutenak, hau da, alkoholaren eta garagardoaren gaineko zergak, izan zirela, hain zuzen ere, beren diru bilketa gehien areagotu zutenak. Aitzitik, hidrokarburoen gaineko zergak, guztizkoaren %75 baino gehiago biltzen baitu, bere hazkunde tasa galgatu zuen. Bi bilakaera kontrajarri horien ondorioz, zerga berezien guztizkoa %3,5 baino ez zen hazi, aurreko ekitaldian izandako gehikuntza tasa justu horren bikoitza izan zen bitartean.

2.6 Finantza arloa

Munduko ekonomiaren ezaugarri nagusiak, 2005. urtean, jaso zen hazkunde erritmo bizia eta prezioen bilakaeran lortu zen kontrola izan ziren. Hala eta guztiz ere, inflazioaren arrisku iraunkorrek, gehiegizko likideziak eta ekoizteko gehiegizko ahalmen globalak munduko banku zentral nagusietako batzuk interes tasei buruz goranzko erabakiak hartzera behartu zuten. Bilakaera horren adibide garbiena Ameriketako Estatu Batuen Erreserba Federala izan zen, bere moneta politika gogortzen jarraitu zuelako, baina Europako Banku Zentrala ere bide beretik joan zen, pausu txikiagoak eman arren.

2005eko urteko txostena

Horiek horrela, Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak, abenduaren 2ko bileran, interes tasa ofizialak %2,25era igotzea erabaki zuen, bi urtez maila benetan apaletan eta inolako aldaketarik gabe mantendu eta gero. Harez geroztik, lau igoera gehiago gertatu dira, azkena 2006ko urrian, guztiak puntu laurden batekoak. Beraz, diruaren prezio ofiziala %3,25ean dago kokatuta. Interes tasen doikuntza hori Euroguneko ekonomiaren sendotzean eta inflazioaren arriskua areagotu izanean oinarritu zen, neurri horiek prezioen egonkortasunean lagunduko dutelakoan. Erabaki horiek onartu arren, Europako Banku Zentralaren moneta politikak oraindik laguntzen du barne eskaria hedatzen.

AEBetako Erreserba Federalak, berriz, 2004. urtean hasi zen bere moneta politika doitzen, garai hartako %1etik 2006ko ekainean adostutako %5,25 arte, erakunde horrek hartutako azken erabakia interes tasa maila horretan jartzea izan baitzen. Inflazioa areagotzeko arriskuak, herrialde hartako barne eskariaren sendotasuna ikusita, norabide horretako neurriak hartzea gomendatzen zuen. Igoera gehiago espero ez bada ere, neurri gehiago hartu daitezke etorkizunean, inflaziorako edo hazkunderako aurreikuspenak aldatzen badira, zeren Bernankek dagoeneko iragarri baitzuen igoerak gelditzeko erabakia behin-behinekoa izan zitekeela, ekonomiaren egoera lasaitasunez aztertu ahal izateko.

BANKU ZENTRALETAKO ERREFERENTZIA TASAK

41. TAULA

Ehunekoak

	Eurogunea	Japonia	Erresuma Batua	AEB
1995	---	0,50	---	5,50
1996	---	0,50	---	5,25
1997	---	0,50	7,25	5,50
1998	---	0,50	6,25	4,75
1999	3,00	0,50	5,50	5,50
2000	4,75	0,50	6,00	6,50
2001	3,25	0,10	4,00	1,75
2002	2,75	0,10	4,00	1,25
2003	2,00	0,10	3,75	1,00
2004	2,00	0,10	4,75	2,25
2005	2,25	0,10	4,50	4,25

Iturria: Espainiako Bankua.

Japoniako Bankuak ez zuen inolako mugimendurik egin 2005. urtean zehar eta interes tasak zerotik hurbil mantendu zituen. Hala ere, erakunde horrek 2006ko martxoaren 9an egin zuen bileran amaitutzat jo zuen interes tasa apalen aldia. Japoniako ekonomiaren susperraldia, hamarkada oso bat baino gehiago geldotasunean igaro ondoren, eta KPI indizea tasa positiboetara itzuli izana erabaki hori hartzeko behar ziren arrazoiak izan ziren. Horiek horrela, 2006ko uztailean interes tasak %0,25era igo ziren, lehenengo igoera sei urtean, eta erakundeak interes tasak oso maila apaletan denboraldi batez mantenduko dituela ziurtatu arren, interes tasak berriro igoko dira ekonomia suspertzen den heinean eta deflazioa atzean gelditzen den neurrian.

Ingalaterrako Bankuak, berriz, mugimendu bakarra egin zuen 2005ean eta interes tasak jaisteko izan zen, aurrez zegoen balioa puntu laurden bat jaitsaraziz. Hala eta guztiz ere, gainontzeko ekonomia eremuetarako aipatu diren baldintza berak izan ziren oinarria 2006. urtean banku horrek interes tasak berriro igotzeko eta %4,75era itzultzeko, Britainia Handiko ekonomiak hazkunde tasa garrantzitsua erakusten zuen une batean.

EBZ-K EUROARENTZAT EZARRITAKO TRUKE TASA OFIZIALAK

42. TAULA

Moneta unitateak euro bakoitzeko

	Dolarrak	Japoniako yenak	Libera esterlinak	Suitzako frankoak
1995	1,307	122,9	0,828	1,544
1996	1,269	138,0	0,813	1,567
1997	1,135	137,2	0,693	1,643
1998	1,119	146,4	0,676	1,622
1999	1,067	121,4	0,661	1,601
2000	0,924	99,5	0,609	1,557
2001	0,895	108,7	0,621	1,510
2002	0,946	118,1	0,629	1,468
2003	1,131	131,0	0,692	1,522
2004	1,243	134,4	0,679	1,544
2005	1,245	136,8	0,684	1,548

Iturria: Espainiako Bankua.

2005eko urteko txostena

2006. urtean zehar, interes tasak igotzeko joerarekin bat egin dute Norvegiako, Danimarkako, Suitzako eta Suediako banku zentralek ere, eta baita Hego Koreako, Indiako, Thailandiako eta Turkiakoek ere. Herrialde horietan guztietan moneta politika gogortzea eta interes tasak igotzea erabaki zuten, diru merkeko aldia amaitutzat joz.

Dibisa merkatuek, interes tasen mugimenduek gidatuta, egonkor mantendu zuten euroaren truke tasa diru nagusien aldean. Hala ere, egonkortasun horretan bazegoen balio irabazteko joera arin bat, 2006. urteko lehen hilabeteetan areagotu zena. AEBetako interes tasen eta Euroguneko tasen arteko aldea murriztu izanak euroak azken egunetan lortu duen sendotasuna azaltzen du. Hain zuzen ere, europar txanponak abuztuan berriro lortu zuen 1,29 dolarreko balioa. Europako Banku Zentralak interes tasak igo izanak areagotu beharko zuen euroaren balioa dolarraren aldean, behintzat epe laburrean. Izan ere, AEBetako interes tasen egonkortasunak eta bere goranzko zikloa amaitzeko bidean dagoelako usteak, alde batetik, eta euroak igotzen jarraitzeko aukera handiak izateak, beste aldetik, Atlantikoko bi aldeetako tasen arteko aldea murriztuko den aurreikuspena areagotu dute. Dolarrak balioaren %8,8 galdu du euroaren aldean igaro diren 2006. urteko hilabeteetan, eta ondorengo hilabeteetan ere joera horri eutsiko diola espero da.

Yenak ere balioa galdu zuen euroaren aldean eta 2000. urtean hasitako balioa galtzeko joerari jarraipena eman zion, ekonomiaren hobekuntzak eta interes tasak igotzeko igurikapenek areagotuta. Libra esterlinak eta Suitzako frankoak, berriz, maila egonkorretan mantendu ziren, 2004. urteko hasieratik ia inolako aldaketarik jaso gabe. Azkenik, 2005. urtean, Euroguneko burtsa kotizazioek 2003ko hasieratik izan zuten goranzko joerari eutsi zioten.

Finantza eta moneta erakundeek arlo pribatuari eman zioten finantzazioak lau puntutik gorako areagotze garrantzitsua jaso zuten 2004. urtean jasotako tasaren aldean. Gehikuntza hori, 2000. urtetik aurrera inoiz lortu den handiena baita, ekonomiaren giro baikorrari eta oraindik apalak diren interes tasei esker gertatu zen. Kreditu pribatuaren bizkortzea batez ere familiei etxebizitzak erosteko eman zizkieten maileguetan oinarritu zen, baina baita finantzaz bestelako sozietateei emandakoetan ere, neurri txikiagoan izan arren. Kreditu pribatuen etengabeko gehikuntzak eta likidezia gehitzeko testuinguru iraunkorrak epe ertainean eta epe luzean prezioen bilakaera egonkortzeko helburuan arriskuak sor daitezkeela iradokitzen dute.

Merkatu kuotei dagokienez, aldaketak oso txikiak izan ziren. Arlo pribatuak berriro lortu zuen kreditu merkatuaren zati nagusia eta 2004. urtean galdu zuen merkatu kuota txikia berreskuratu zuen. Azpimarratu behar da aurrezki kutxek, lehenengo aldiz, bankuen merkatu kuota gainditu zutela.

BANKU SISTEMAK EAE-N EMANDAKO KREDITUAK ETA GORDAILUAK

43. TAULA

Aldia	Arlo pribatua								Arlo publikoa	
	Bankuak		Aurrezki kutxak		Kooperatibak		Guztira		Guztira	
	Tasa	Kuota	Tasa	Kuota	Tasa	Kuota	Tasa	Kuota	Tasa	Kuota
Kredituak										
1999	7,8	49,7	18,7	38,5	12,7	11,8	12,3	96,5	-10,6	3,5
2000	24,3	51,1	18,2	37,6	16,1	11,3	21,0	97,3	-6,5	2,7
2001	5,3	48,7	15,7	39,3	17,1	12,0	10,6	97,7	-8,3	2,3
2002	5,4	46,9	12,8	40,6	13,6	12,4	9,3	97,8	3,3	2,2
2003	8,2	45,7	13,3	41,4	15,0	12,9	11,1	97,8	15,5	2,2
2004	8,0	44,1	15,2	42,7	14,6	13,2	11,8	97,5	26,9	2,5
2005	11,5	42,4	19,8	44,1	18,7	13,5	16,0	97,8	0,3	2,2
Gordailuak										
1999	9,7	29,8	7,4	55,9	10,3	14,3	8,5	94,0	14,1	6,0
2000	21,7	31,9	7,9	53,1	18,3	15,0	13,5	93,1	31,7	6,9
2001	7,5	31,6	7,9	52,8	13,1	15,6	8,6	93,1	8,6	6,9
2002	-2,3	29,1	9,9	54,6	11,3	16,3	6,3	94,2	-11,7	5,8
2003	8,8	29,6	5,8	54,2	5,9	16,2	6,7	94,6	-0,4	5,4
2004	-3,7	27,1	6,5	54,8	17,7	18,1	5,3	94,6	5,0	5,4
2005	6,1	27,3	4,8	54,6	4,9	18,1	5,2	94,2	12,8	5,8

Iturria: Espainiako Bankua.

Banku gordailuek, ordea, kredituena ez bezalako joera erakutsi zuten. Izan ere, arlo publikoaren gordailuek 2001. urtetik aurrera izandako gehikuntza tasa handiena lortu zuten bitartean, arlo

2005eko urteko txostena

pribatuaren gordailuek hazkunde egonkorri eutsi zioten. Azken bilakaera honen arrazoiak izan daitezke, bereziki, aurrezteko motibazio falta, bankuetako pasiboek eskaintzen duten errentagarritasun txikia ikusita, eta familia askoren zorpetze maila handia.

ESTATISTIKA ERANSKINA

I. atala: Nazioarteko ekonomia

1. taula	Barne produktu gordina	73
2. taula	Langabezia tasa	74
3. taula	Banakako lan kostu erlatiboa.....	75
4. taula	Kontsumoko prezioen indizea	76

II. atala: Espainiako ekonomia

5. taula	BPG. Eskaintza. Bolumenaren indize kateatua	77
6. taula	BPG. Eskaria. Bolumenaren indize kateatua	78
7. taula	Lan merkatua	79
8. taula	Kontu korronteko ordainketa balantza.....	80
9. taula	Inportazioen geografia jatorria	81
10. taula	Estatuko finantzak	82
11. taula	Batez besteko interes tasak	83

III. atala: EAEko ekonomia

12. taula	BPG EAE uneko prezioak. Eskaintza.....	84
13. taula	BPG EAE bolumenaren indize kateatua. Eskaintza.....	85
14. taula	Sektoreen partehartzea BEGen(uneko prezioak).....	86
15. taula	BPG EAE uneko prezioak. Eskaria	87
15. taula (jarraip.)	BPG EAE uneko prezioak. Eskaria.....	88

2005eko urteko txostena

16. taula	BPG EAE bolumenaren indize kateatuak. Eskaria.....	89
16. taula (jarraip.)	BPG EAE bolumenaren indize kateatuak. Eskaria.....	90
17. taula	16 urteko eta gehiagoko biztanleak eta parte hartzaileak	91
18. taula	Landunak.....	92
19. taula	Langabeak.....	93
20. taula	Partehartze eta langabezia tasak	94
21. taula	BAIren aldagai nagusiak.....	95
22. taula	Enplegua erregulatzeko espedienteak	96
23. taula	Hitzarmen kolektiboak eta lan gatazkak	97
24. taula	Kontsumo prezioen indizea.....	98
24. taula (jarraip.)	Kontsumo prezioen indizea.....	99
25. taula	Kontsumo prezioen indizea (oinarria 2001).....	100
25. taula (jarraip.)	Kontsumo prezioen indizea (oinarria 2001).....	101
26. taula	Industria prezioen indizea.....	102
27. taula	Kanpo merkataritza	103
28. taula	Energiakoak ez diren esportazioak arantzel taldeka.....	104
29. taula	Energiakoak ez diren inportazioak arantzel taldeka.....	105
30. taula	Energiakoak ez diren esportazioen geografia helburua	106
30. taula (jarraip.)	Energiakoak ez diren esportazioen geografia helburua	107
31. taula	Energiakoak ez diren inportazioen geografia jatorria	108
31. taula (jarraip.)	Energiakoak ez diren inportazioen geografia jatorria	109

BARNE PRODUKTU GORDINA

1.TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	Japonia	EB-25	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua
1985	4,1	5,1			2,0	3,5	2,3
1986	3,5	3			2,4	3,9	3,3
1987	3,4	3,8			2,3	4,5	5,5
1988	4,1	6,8			4,6	5,0	5,1
1989	3,5	5,3			3,9	2,2	4,8
1990	1,9	5,2			2,7	0,7	3,8
1991	-0,2	3,4			1,3	-1,4	2,5
1992	3,3	1,0		2,2	1,8	0,2	0,9
1993	2,7	0,2		-0,8	-1,1	2,3	-1,0
1994	4,0	0,4		2,7	2,0	4,3	2,4
1995	2,5	1,9		1,9	2,2	2,9	5,0
1996	3,7	2,6	1,8	1,0	1,1	2,8	2,4
1997	4,5	1,4	2,7	1,8	2,2	3,0	3,9
1998	4,2	-1,8	3,0	2,0	3,5	3,3	4,5
1999	4,4	-0,2	3,0	2,0	3,2	3,0	4,7
2000	3,7	2,9	3,9	3,2	4,0	3,8	5,0
2001	0,8	0,4	2,0	1,2	1,9	2,4	3,6
2002	1,6	0,1	1,2	0,0	1,0	2,1	2,7
2003	2,5	1,8	1,3	-0,2	1,1	2,7	3,0
2004	3,9	2,3	2,3	1,2	2,3	3,3	3,2
2005	3,2	2,6	1,7	0,9	1,2	1,9	3,5

(1) Datuak Alemania Batua 1993ko urtarrilaren aurretik.
Iturria: Eurostat.

2005eko urteko txostena

LANGABEZIA TASA

2. TAULA

%

	AEB	Japonia	EB-25	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua (2)
1985	7,2	2,6	---	---	9,8	11,2	21,5
1986	7,0	2,8	---	---	9,8	11,2	17,4
1987	6,2	2,8	---	---	9,9	10,3	16,7
1988	5,5	2,5	---	---	9,4	8,5	15,8
1989	5,3	2,3	---	---	8,9	7,1	13,9
1990	5,6	2,1	---	---	8,5	6,9	13,1
1991	6,8	2,1	---	---	9,0	8,6	13,2
1992	7,5	2,2	---	---	9,9	9,8	14,9
1993	6,9	2,5	---	6,9	11,7	10,4	17,2
1994	6,1	2,9	---	7,3	12,1	9,5	19,1
1995	5,6	3,2	---	7,1	11,5	8,6	18,7
1996	5,4	3,4	---	7,7	12,1	8,1	17,5
1997	4,9	3,4	---	8,6	12,1	7,0	16,3
1998	4,5	4,1	9,4	8,1	11,5	6,2	14,6
1999	4,2	4,7	9,1	7,5	10,8	6,0	12,2
2000	4,0	4,7	8,6	6,9	9,4	5,5	10,8
2001	4,8	5,0	8,4	6,9	8,7	5,1	10,1
2002	5,8	5,4	8,8	7,6	9,0	5,2	11,0
2003	6,0	5,3	9,0	8,7	9,8	5,0	11,0
2004	5,5	4,7	9,1	9,2	10,0	4,7	10,5
2005	5,1	4,4	8,7	9,1	9,9	4,8	9,2

Iturria: ELGE, EUROSTAT.

(1) Datuak Alemania Batuarenak dira 1993ko urtarrilaren aurretik.

(2) 2001. urtetik aurrera, langabeziaren datuetan 2005eko metodologia erabiltzen da.

BANAKAKO LAN KOSTU ERLATIBOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	EB-25	Alemania	Frantzia	Erresuma Batua	Espainia
1994	-1,1	---	-2,2	-2,0	-2,4	-3,0
1995	-0,5	---	0,0	-0,3	-1,1	-4,2
1996	-1,2	-0,7	-0,5	-0,4	-2,7	0,1
1997	-0,7	-0,8	-1,4	-1,0	-0,1	-0,4
1998	1,7	-0,7	-0,4	-1,0	1,0	-0,6
1999	0,4	0,4	0,1	1,1	0,7	-0,7
2000	1,8	-0,1	1,3	-0,3	1,7	-0,6
2001	-0,3	0,4	-0,4	0,3	1,3	-0,9
2002	-2,3	-0,4	-0,7	0,6	-0,7	-1,4
2003	-1,3	-0,3	-0,4	0,1	-0,5	-1,0
2004	-0,8	-1,1	-1,7	-1,1	0,1	-1,2
2005	0,5	-0,3	-1,4	0,0	1,8	-2,1

Iturria: Eurostat.

2005eko urteko txostena

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	AEB	Japonia	EB-25	Alemania (1)	Frantzia	Erresuma Batua	Estatua
1985	3,5	2,0	---	2,1	5,8	5,2	8,8
1986	1,9	0,6	---	-0,1	2,5	3,6	8,8
1987	3,6	0,1	---	0,2	3,3	3,7	5,2
1988	4,1	0,7	---	1,3	2,7	4,6	4,8
1989	4,8	2,3	---	2,8	3,5	5,9	6,8
1990	5,4	3,1	---	2,7	3,2	8,1	6,7
1991	4,2	3,2	---	4,1	3,4	7,5	5,9
1992	3,0	1,7	4,0	5,1	2,5	4,2	5,9
1993	3,0	1,3	3,4	4,4	2,2	2,5	4,9
1994	2,6	0,7	2,8	2,7	1,7	2,0	4,6
1995	2,8	-0,1	3,0	2,7	1,8	2,7	4,6
1996	2,9	0,0	3,1	1,2	2,1	2,5	3,6
1997	2,3	1,7	2,6	1,5	1,3	1,8	1,9
1998	1,5	0,7	2,1	0,6	0,7	1,6	1,8
1999	2,2	-0,3	1,6	0,6	0,6	1,3	2,2
2000	3,4	-0,8	2,4	1,4	1,8	0,8	3,5
2001	2,8	-0,8	2,5	1,9	1,8	1,2	2,8
2002	1,6	-0,9	2,1	1,3	1,9	1,3	3,6
2003	2,3	-0,3	1,9	1,0	2,2	1,4	3,1
2004	2,7	0,0	2,1	1,8	2,3	1,3	3,1
	3,4	-0,4	2,2	2,0	1,9	2,1	3,4

(1) Alemania Batua, ELGEk lotutako serieak.
Iturria: ELGE, EUROSTAT

BPG ESTATUA. ESKAINTZA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

5. TAULA

	BPG	Nekazaritza eta arrantza	Energia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Merkatu Zerbitzuak	Merkat. ez diren zerbitzuak	Produkt. gain. zerga garbiak.
1995	81,8	70,7	94,5	78,3	80,3	84,3	83,3	87,7	75,0
1996	83,8	85,2	96,6	80,3	79,8	85,4	84,4	89,0	77,4
1997	87,0	91,3	98,1	85,5	81,6	87,9	87,0	91,1	82,4
1998	90,9	94,1	96,2	90,6	87,2	91,2	90,6	93,4	88,7
1999	95,2	93,2	97,1	95,8	94,4	95,2	94,8	96,5	95,2
2000	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2001	103,6	98,0	104,0	103,2	108,6	103,6	103,7	103,1	103,2
2002(b)	106,5	98,5	104,9	103,1	115,4	106,6	106,8	106,0	107,6
2003(b)	109,7	97,8	109,7	104,0	121,2	109,8	109,6	110,4	114,7
2004(b)	113,3	99,7	112,1	104,4	127,5	113,7	113,5	114,4	119,7
2005(a)	117,2	89,7	116,3	104,6	134,4	118,7	118,8	118,5	126,6

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG	Nekazaritza eta arrantza	Energia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Merkatu Zerbitzuak	Merkat. ez diren zerbitzuak	Produkt. gain. zerga garbiak.
1996	2,4	20,6	2,3	2,5	-0,7	1,4	1,4	1,5	3,3
1997	3,9	7,1	1,5	6,4	2,3	2,9	3,1	2,3	6,4
1998	4,5	3,1	-1,9	6,0	6,9	3,8	4,2	2,5	7,7
1999	4,7	-1,0	0,9	5,7	8,3	4,3	4,6	3,3	7,3
2000	5,0	7,3	3,0	4,4	5,9	5,1	5,5	3,7	5,0
2001	3,6	-2,0	4,0	3,2	8,6	3,6	3,7	3,1	3,2
2002(b)	2,7	0,4	0,8	-0,1	6,3	3,0	3,0	2,8	4,3
2003(b)	3,0	-0,7	4,5	0,9	5,1	2,9	2,6	4,2	6,6
2004(b)	3,2	1,9	2,2	0,4	5,1	3,6	3,6	3,7	4,4
2005(a)	3,5	-10,0	3,8	0,3	5,4	4,4	4,6	3,5	5,7

(b) Behin-behinekoa

(a) Aurrerapena

Iturria: INE.

2005eko urteko txostena

BPG ESTATUA. ESKARIA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

6. TAULA

	BPG.	Gastua azken kontsumoan	Kontsumo pribatua	FZIAGEen azken kontsumoa	Kontsumo publikoa	KEG	KFEG	Ondasun eta zerb. esport.	Ondasun eta zerb. inport.
1995	81,8	82,5	82,0	69,4	85,0	70,7	70,8	61,6	56,1
1996	83,8	84,2	83,8	71,1	86,1	72,3	72,6	67,9	61,0
1997	87,0	86,8	86,5	73,9	88,2	75,7	76,3	78,1	69,1
1998	90,9	90,7	90,7	78,8	91,3	84,9	84,9	84,4	79,4
1999	95,2	95,2	95,4	88,5	95,0	94,2	93,8	90,7	90,2
2000	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
2001	103,6	103,5	103,4	104,5	103,9	104,4	104,8	104,2	104,5
2002(b)	106,5	106,8	106,3	108,8	108,6	108,0	108,3	106,2	108,4
2003(b)	109,7	110,3	109,3	111,0	113,8	113,7	114,7	110,1	115,2
2004(b)	113,3	115,5	113,9	116,3	120,9	119,5	120,5	114,7	126,3
2005(a)	117,2	120,5	118,6	123,1	126,8	127,7	128,9	116,4	135,1

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG	Gastua azken kontsumoan	Kontsumo pribatua	FZIAGEen azken kontsumoa	Kontsumo publikoa	KEG	KFEG	Ondasun eta zerb. esport.	Ondasun eta zerb. inport.
1996	2,4	2,0	2,3	2,4	1,3	2,2	2,6	10,3	8,8
1997	3,9	3,0	3,2	4,0	2,5	4,8	5,0	15,0	13,3
1998	4,5	4,5	4,8	6,7	3,5	12,1	11,3	8,0	14,8
1999	4,7	5,0	5,2	12,3	4,0	11,0	10,4	7,5	13,7
2000	5,0	5,0	4,9	12,9	5,3	6,1	6,6	10,2	10,8
2001	3,6	3,5	3,4	4,5	3,9	4,4	4,8	4,2	4,5
2002(b)	2,7	3,2	2,8	4,1	4,5	3,4	3,4	2,0	3,7
2003(b)	3,0	3,3	2,8	2,0	4,8	5,3	5,9	3,7	6,2
2004(b)	3,2	4,7	4,2	4,8	6,3	5,1	5,0	4,1	9,6
2005(a)	3,5	4,3	4,2	5,9	4,8	6,9	7,0	1,5	7,0

(b) Behin-behinekoa

(a) Aurrerapena

Iturria: INE.

LAN MERKATUA

7. TAULA

Milaka lagun

	16 urte eta gehiagoko biztanleria	Parte hartzaileak	Landunak	Langabeak	Partehartze tasa	Langabezia tasa
1992	30.989,7	15.705,7	12.822,3	2.883,4	50,7	18,4
1993	31.272,1	15.892,6	12.293,8	3.598,8	50,8	22,6
1994	31.556,5	16.087,7	12.207,6	3.880,1	51,0	24,1
1995	31.847,3	16.227,6	12.512,1	3.715,6	51,0	22,9
1996	32.218,4	16.517,8	12.871,5	3.646,3	51,3	22,2
1997	32.584,5	16.809,7	13.345,6	3.464,1	51,6	20,8
1998	32.872,8	17.081,0	13.904,2	3.176,8	52,0	18,7
1999	33.190,2	17.412,1	14.689,8	2.722,2	52,5	15,6
2000	33.593,1	18.002,3	15.505,9	2.496,4	53,6	13,9
2001	34.067,2	18.050,7	16.146,3	1.904,4	53,0	10,6
2002	34.614,6	18.785,6	16.630,3	2.155,3	54,3	11,5
2003	35.215,3	19.538,2	17.296,0	2.242,2	55,5	11,5
2004	35.810,8	20.184,5	17.970,9	2.213,6	56,4	11,0
	36.416,0	20.885,7	18.973,3	1.912,5	57,4	9,2

Iturria: INE.

Oharra: INEk serieak berrikusi zituen biztanleriaren gehikuntzaren emaitzak egokitzeko.

2005eko urteko txostena

KONTU KORRONTEKO ORDAINKETA BALANTZA

8. TAULA

Milioika euro

	Esportazioak	Inportazioak	Saldoa
1997	94.294	106.807	-12.513
1998	100.734	119.999	-19.265
1999	105.969	135.944	-29.975
2000	125.582	165.812	-40.230
2001	131.239	169.840	-38.601
2002	134.816	171.326	-36.510
2003	139.754	179.593	-39.839
2004	148.967	202.627	-53.660
2005	156.375	225.344	-68.969

Urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak	Inportazioak	Saldoa
1998	6,8	12,4	54,0
1999	5,2	13,3	55,6
2000	18,5	22,0	34,2
2001	4,5	2,4	-4,0
2002	2,7	0,9	-5,4
2003	3,7	4,8	9,1
2004	6,6	12,8	34,7
2005	5,0	11,2	28,5

Iturria: Espainiako Bankua.

IMPORTAZIOEN GEOGRAFIA JATORRIA

9. TAULA

Egitura ehunekotan

	Frantzia	Alemania	Italia	E.Batua	Portugal	EB15	AEB	Japonia	ELGE	LPEE	NEI Asia*	Amer. Latinoa	Ekialdek Europ**
1985	9,2	10,5	4,6	6,4	0,8	---	10,9	3,4	56,6	20,3	---	10,4	2,3
1986	11,8	15,1	7,2	7,7	1,3	---	9,8	4,9	71,9	11,2	---	6,7	1,7
1987	12,8	16,1	8,8	7,0	1,7	---	8,3	4,5	74,1	9,5	---	5,9	2,6
1988	13,5	16,2	9,6	7,1	2,1	---	9,0	5,1	77,7	6,7	---	5,1	2,6
1989	13,8	16,3	9,9	6,5	2,3	---	9,1	4,8	77,7	7,4	---	4,6	2,5
1990	14,7	16,4	10,2	7,2	2,5	---	8,4	4,4	78,7	7,2	---	4,3	2,1
1991	15,2	16,2	10,0	7,6	2,7	---	8,0	4,7	78,7	7,2	---	4,2	1,3
1992	16,0	16,4	9,8	7,3	2,7	63,7	7,3	4,7	80,5	5,7	---	4,3	1,6
1993	16,8	14,9	8,5	7,4	2,7	62,3	7,3	4,3	79,0	5,8	---	4,5	2,0
1994	17,5	14,6	8,7	8,0	2,7	64,0	7,3	3,6	79,1	6,0	2,8	4,4	2,2
1995	17,2	15,3	9,3	7,9	3,0	65,7	6,4	3,3	79,6	5,5	2,8	4,2	2,6
1996	17,8	14,9	9,6	8,3	2,9	66,4	6,3	2,8	79,4	6,3	2,7	4,1	2,4
1997	17,2	14,8	9,6	8,1	2,7	65,3	6,3	2,7	78,2	6,6	3,0	4,3	2,4
1998	18,4	15,5	9,9	7,7	2,8	67,8	5,7	3,0	80,2	5,0	3,2	3,9	2,3
1999	17,9	15,8	9,3	7,5	2,8	67,3	5,5	3,2	81,5	5,1	3,2	3,8	2,5
2000	17,1	14,8	8,9	7,1	2,7	63,6	5,2	2,9	78,0	8,2	3,1	4,0	3,9
2001	16,7	15,5	9,2	7,0	2,8	64,1	4,5	2,5	78,2	7,2	3,0	4,2	4,3
2002	16,4	16,1	9,1	6,5	3,1	64,0	4,1	2,4	77,7	6,3	2,9	4,3	5,1
2003	16,1	16,3	9,1	6,4	3,2	64,0	3,7	2,6	78,1	6,3	2,9	4,1	5,4
2004	15,2	16,1	9,1	6,1	3,3	62,3	3,6	2,8	77,0	6,2	2,9	4,0	6,1
2005(b)	14,2	14,6	8,6	5,7	3,2	60,8	3,4	2,5	73,6	7,4	3,0	4,9	6,7

(b) Behin-behinekoa.

(*) NEI Asia 1994tik aurrera: Hong-Kong, Hego Korea, Singapur, Taiwan, Malasia eta Thailandia.

(**) Ekialdeko Europa: Europako kide berriak, hautagai berriak eta EIE.

Iturria: Aduana eta Zerga Berezietako Saila.

2005eko urteko txostena

ESTATUKO FINANTZAK

10. TAULA

Milioika euro

	Finantzazio gaitasuna/beharra	Sarrera ez finantzarioak	Gastu ez finantzarioak	Kutxa defizita	BPGren %
1995	4.414	84.606	103.623	-19.017	4,3
1996	5.531	87.925	110.063	-22.138	4,8
1997	7.453	99.988	112.302	-12.314	2,5
1998	1.152	105.291	111.989	-6.698	1,3
1999	-5.516	110.370	116.724	-6.354	1,1
2000	-18.475	118.694	121.125	-2.431	0,4
2001	-23.248	125.193	128.077	-2.884	0,4
2002	-18.843	108.456	111.082	-2.626	0,4
2003	-23.452	109.655	113.787	-4.132	0,6
2004	-40.074	114.793	114.734	59	0,1
2005(a)	-58.462	128.777	122.755	6.022	0,7

(a) Aurrerapena.

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Espainiako Bankua.

BATEZ BESTEKO INTERES TASAK

11. TAULA

	Banku arteko merkatua					Banku Zentraletako erreferentzia tasak			
	Egun 1	Hil 1	3 Hil	6 Hil	Urte 1	Euro Gunea	Japonia	Erresuma Batua	AEB
1977	13,1	15,3	15,5	12,9	5,4	-	4,2	-	6,5
1978	20,8	21,8	17,6	17,7	0,0	-	3,5	-	10,0
